

JARDUEREN  
TXOSTENA

2022



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

## KONTSULTA JARDUERA BULTZATZEA

2022an COVID-19a egonkortu zen eta maskarak eguneroko bizitzan bigarren mailan egotera igaro ziren. Pandemiak atseden bat emango zigula ematen zuenean, beste agerraldi bat azaldu zen: inflazioa. Pandemiaren astinduak eta Ukrainako gerraren ondorioz eratorritako arrisku geopolitiko berriek kolokan jarri zituzten aurreikuspen sozioekonomikoak eta ziurgabetasun mailak gora egin zuen.

Testuinguru horretan, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak bere jarduera erabat berreskuratu zuen. Akitania Berriko CESER-ekin bilerak eta jarduketak indartu zituen, bereziki, baita Arku Atlantikoko beste kontseilu batzuekin ere.

Baina, zalantzarik gabe, kontsulta jarduera, hau da, Batzordearen xedea izan zen 2022an Kontseilu honetan bultzadarik handiena jaso zuen jarduera. Hamasei irizpen eman ziren garrantzi eta eragin sozial handiko gaien buruz, hala nola Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legearen Aurreproiektua, 2021-2024 Enplegu Plan Estrategikoa edota Enpleguaren Euskal Legearen Aurreproiektua. Hiru horiek interes handiko ekimen legegileak dira Euskadiko hainbat kolektiborentzat. Interesekoak dira baita ere Haur eta Nerabeen Legearen aurreproiektuan jasotakoak. Kontseiluak 2022ko irailean eman zuen horri buruzko irizpena.

Beste plano batean, azpimarratu behar da hamalau urtetik beherako seme alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzei buruzko Dekretu Proiektuari buruzko irizpena. Bertan, Batzordeak errepikatu zuen familia politikak ikuspegi integralago baterantz eraldatu eta aurrera egin behar dutela, bai eta beste kontziliazio neurri eta baliabide batzuk aztertu ere. Premia horrek ahalbidetuko du, besteak beste, modu eraginkorragoan jorratu ahal izatea aurre egin behar dugun erronka demografikoa.

Irizpena emateko jardueraz harago, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak urteko memoria sozioekonomikoa egiteko legezko agindua bete zuen, eta uztailean aurkeztu zen jendaurrean memoria hori.

Gainera, EBko esparruan, gizarte eta ekonomia politiken inguruko hainbat jardunaldi ospatu ditu Europako EGAB eta España EGAB lankide izan dituela. Gainera, Atlantikoko Sare Transnazionala hartu du (Espainiako eta Frantziako zenbait kontseilu ekonomiko eta sozialek osatzen dute, Euskadikoak barne). Amaitzeko, Atlantikoko korridoreari eta Europa barneko garraio sarea berrikusteko prozesuari buruzko azterlan egin du. Azterlan horretan, Atlantikoko Sare Transnazionalak zortzi proposamen egin ditu eta Europako Batzordeak aurkeztutako Europa barneko Garraio Sarea berrikusteko proposamenarekin alderatu ditu, Arku Atlantikoko Europako eskualdeen lankidetzarako gako gisa.



**Emilia M. Málaga Pérez**

**Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Presidentea**

# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea



## ZIHURTAGIRIA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduaren Arautegiaren 16 b) artikuluan ezarri denez, besteak beste Jardueren Urteko Memoria onesteko eginkizuna du eratzikita Osoko Bilkurak.

Arautegian ezarritakoa betez, 2022ko ekitaldiari dagokion Jardueren Memoria egin da eta, hortaz, hauxe

## ZIHURTATZEN DUT

**Lehenik**, Euskadiko eta Ekonomia Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak, 2023eko martxoaren **30eko ezohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuela :**

**“Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako 2022ko Jardueren Memoria onestea”**

**Bigarrenik**, Batzordearen Osoko Bilkurak aipaturiko erabakian onetsitako Memoriaren edukia oso-osorik dakar argitalpen honek.

Eta ondorioak izan ditzan, honako hau sinatzen dut Bilbon, 2023ko martxoaren **30ean**



**Olatz Jaureguizar Ugarte**

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Idazkari Nagusia

# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

I. KAPITULUA  
ERAKUNDEAREN INFORMAZIOA

6

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseilueen Historia	6
Euskadiko EGAB. Sorrera eta Izaera	6
Eginkizunak	7
Osaera	8
Osoko Bilkuraren osaera	9
Organoak	10
Kontseiluaren araubide Ekonomiko-finantzarioa	11

II. KAPITULUA  
JARDUEREN TXOSTENA

12

EGABen Legean ezarritako eginkizunak gauzatzea	12
Aurreko aholku-jadueraren eraginaren jarraipena	32
EAEko 2021ko Egoera sozioekonomikoari buruzko memoria	39
EGABen organoen bilerak	42
Batzorde egutegia	49

III. KAPITULUA  
JARDUERA INSTITUZIONALA

50

IV. KAPITULUA  
KUDEATZEKO BALIABIDEAK

59

2022 aurrekontuak	59
-------------------	----

V. KAPITULUA  
KOMUNIKAZIOAK ETA ARGITALPENAK

61

Komunikazioa	61
Argitalpenak	62

ERANSKINA.  
Euskadiko EGABren Araudioa

64

# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

## I. KAPITULUA ERAKUNDEAREN INFORMAZIOA

### EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO KONTSEILUEN HISTORIA

Egungo Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluen aurrekariak Lehen Mundu Gerraren amaieraren ondoko urteetan ditugu. 1919an, Lanaren Nazioarteko Bureau delakoa sortu zen nazioarteko batzar gisa, eta bertan, gobernuek, langileek eta enpresaburuek, parte hartzen zuten, lan-baldintzak hobetzeko nazioarteko legeria elkarrekin lantzeko xedez.

Harrezkero, ituntzeko lehen tresnak agertu ziren Europan, hau da, egungo Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluen aurrekariak. Lehen erakundea 1925ean sortu zen Frantzian, eta geroago antzeko beste batzuk agertu ziren Europako beste herrialde batzuetan, bereziki, Bigarren Mundu Gerra bukatutakoan.

Europako Ekonomia Erkidegoak berak sortu zuen, bere organo nabarmenen artean, Ekonomia eta Gizarte Batzordea. Funtsezko antzekotasunak daude horietan guztietan, beren izaerari eta eginkizunei dagokienez: organo aholku-emaeleak dira, gobernuen politika ekonomikoan, gizarte- eta ekonomia-esparruetako ordezkarien parte hartzea ahalbidetzen dutenak eta, aldi berean, haien arteko elkarrizketa eta lankidetzat bideratzen dutenak.

Halaber, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluak ez du jokabide pasiborik, ezpada, berezko ekimena direnak direlako gobernu eta parlamentuek kontuan izan beharko lituzketen proposamenak edo ebazpenak mahairatzeko orduan. Aholkuak emateko organoa den aldetik, autonomia eta lokabea da gobernutik eta parlamentutik, eta haren txostenak lotesleak ez badira ere, aginduzkoak dira kasu askotan. Nolanahi ere, aintzat hartu beharreko iritzi kualifikatua ematen du kontseiluak.

### EGAB. SORRERA ETA IZAERA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea Eusko Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren erakunde aholku-emaelea da, eta ekonomia eta gizarte ordezkariak Euskadiko politika ekonomikoan eta sozialean parte hartzea du xede.

4/1984 Legearen bidez sortu zen, eta haren arauak hainbat lege aldaketa izan dituzte. Egun, hauetan ezarritakoak eraentzen du EGAB: Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legea, urriaren 29ko 433/2013 Dekretua eta 2013ko azaroaren 22ko Osoko Bilkuraren erabakiak onetsitako Funtzionamendu Arautegia.



EGABek nortasun juridiko propioa du, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioarena ez bezalako, eta ahalmen eta beregaintasun osoa du legeak eratziki dizkion eginkizunak betetzeko.

EGABren egoitza Bilbon dago, eta bertan egiten dira Kontseiluaren organoen bilkurak.

- Politika ekonomikoarekin eta sozialarekin loturiko lege proiektuei buruzko aginduzko informazioa ematea, Laneko Harremanen Kontseiluari atxikitako arloak alde batera utzita, hura arautzen duen legearen arabera. Aurretiazko txosten horretatik daude salbuetsita Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren lege proiektuak, baita berau aldatzeko edo osatzeko legegintzako arauak ere. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak edukiaren berri eman behar dio EGABi
- Politika ekonomikoarekin eta sozialarekin loturiko lege proiektuei buruzko aginduzko informazioa ematea, Laneko Harremanen Kontseiluari atxikitako arloak alde batera utzita, Eusko Jaurlaritzaren ustez, garrantzi berezikoak badira. Proiektu horretatik daude salbuetsita aurreko ekitaldietan onetsitakoen jarraipena dakarten dekretu proiektuak edo berrikuntza edo aldaketa nabarmenak ez dakartenak ere. Aurrekoa gorabehera, Eusko Jaurlaritzak, aukeran, gai horien inguruko txostenak eska diezazkioke kontseiluari.
- Aginduzko informazioa ematea Eusko Jaurlaritzak hartutako beste edozein administrazio ebazpenen inguruan, politika ekonomiko eta sozialarekin lotuta badaude eta Laneko Harremanen Kontseiluari bere lege arau-emaitan dagozkion arloak alde batera utzita, betiere Eusko Jaurlaritzaren ustez garrantzi berezikoak badira.
- Nahitaezko txostenak ematea Eusko Jaurlaritzak politika ekonomiko eta sozialaren arloan dituen plan orokorrei buruz.
- Aurreko ataletan aipaturiko arloei buruzko proposamenak egitea Eusko Jaurlaritzari.
- Bere ekimenez edo Eusko Jaurlaritzak nahiz Legebiltzarrak eskatuta, irizpenak, ebazpenak edo txostenak egitea, lehen bi ataletan aipaturiko arloei dagozkienak.
- Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren jarduera ekonomikoei buruz eginiko plangintzan parte hartzea.
- Urtero-urtero memoria bat egitea eta Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari helaraztea. Memoria horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera ekonomikoari eta sozialari buruzko iritziak azaldu behar dira
- Bere eginkizunak betetzeko behar duen informazioa eskatzea eta jasotzea administrazio orokorretik eta Euskal Autonomia Erkidegoko edozein erakundetatik.



# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

## OSAERA

Hogeita hamabi kide osatzen dute EGAB. Honako hauek, hain zuzen:

- Zortzi kide sindikatu-erakunde eta -konfederazio nagusien ordezkartzan.
- Zortzi kide enpresa-konfederazioen ordezkartzan.
- Kide bana Euskal Autonomia Erkidegoko ondoko sektore, erakunde, entitate edo elkarteen ordezkartzan:
  1. Merkataritza, industria eta itsasketa ganberak.
  2. Aurrezki kutxak eta finantza erakundeak.
  3. Kooperatibak.
  4. Lan-sozietate anonimoak.
  5. Arrantza erakundeak.
  6. Nekazaritza erakundeak.
  7. Kontsumitzaileen erakundeak.
  8. Gizarte ekintzaren hirugarren sektoreko erakundeak.
- Zortzi kide EGABen eginkizunei lotutako arloetan adituak.

EGABek presidentzia du. Arestian adierazitako pertsonaren bat burua ez bada, kideen kopurua hogeita hamahirukoa izango da. Kontseilukideak lau urterako izendatzen dira

## Osoko Bilkuraren osara 2022an:

**Idazkari Nagusia:** Olatz Jaureguizar Ugarte

**Presidentea:** Emilia M. Málaga Pérez

	TITULARRAK	ORDEZKOAK	
SINDIKATUEN ERAKUNDE ETA KONFEDERAZIOEN ORDEZKARITZAN	Estibaliz Montero Mendoza	Arkaitz Antizar Kerexeta	CCOO
	Arantza Martínez Tobalina	Santiago Martínez Pérez	
	Jone Robledo Zapatero	Alfonso Ríos Velada	
	Oskar Arenas Velasco	Jorge Hurtado Abrisqueta	
	Francisco Juan Osuna Matamoros	Gregorio Martín Benito	

### A TALDEA

Xuria Árza Vélez	Leire Sáez Ríos	UGT
Raúl Árza Vélez	José Luis Torrón Villanueva	
Daniel González Taboada	Juan Carlos Cárdenas Bonelli	

ENPRESA  
KONFEDERAZIOEN  
ORDEZKARITZAN

### B TALDEA

Virginia Múgica Conde	Ana García Polanco
Nerea Zamácola Gárate	Ana Boto Sánchez
Yoana Arambalza Zalbidea	Silvia Ara Quincoces
Pablo Martín Goitia	Eduardo Arechaga Cilleruelo
Gonzalo Salcedo Bilbao	Fernando Raposo Bande
Fco. Javier Sasigain Sáez de Buruaga	José Miguel Ayerza Mendiburu
Adolfo Rey Gómez	Jon Lasa Ibarreche
Aitor Otaola Díez de Alda	Juan Ugarte Aguirrezabal

EAEKO SEKTORE,  
ERAKUNDE EDO ELKARTE  
BAKOITZAREN  
ORDEZKARITZAN

### C TALDEA

Jesús María Corres Santos	Eduardo Mozo de Rosales Fano	MERKATARITZA, INDUSTRIA ETA NABIGAZIOKO GANBERAK
Patxi Olabarria Furundarena	Fco. Javier Sanz Santaolalla	KOOPERATIBAK
Aurelio Bilbao Barandica	Luis Francisco Marín Andrés	ARRANTZA ERAKUNDEAK
Ana Alzaga Menaza	Jon Ariño Gallego	GIZARTE EKINTZAKO ERAKUNDEAK
Pedro Martínez de Alegría Pinedo	Rafael Aranguren Ilardia	AURREZKI KUTXAK ETA FINANTZA ERAKUNDEAK
Javier Muñecas Herreras	Jone Nolte Usparicha	LANEKO SOZIETATE ANONIMOAK
Mikel Barturen Nuño	Soraya Chacón Ramos	GIZARTE EKINTZAKO HIRUGARREN SEKTOREKO ERAKUNDEAK
Garikoitz Nazabal Etxabe	Iñigo Bilbao Rekaigorri	NEKAZARITZA ERAKUNDEAK

IZENDATURIKO ADITUAK

### D TALDEA

Idoia Peñacoba Etxebarria  
Arantza Estefanía Larrañaga  
Itziar Alkorta Idiakez  
Osane Oruetxebarria Fernández de la Peña  
Aitor Alzola Martínez de Antoñana  
Fernando Fantova Azcoaga  
Joseba Madariaga Ibarra  
Jon Barrutia Güenaga

# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

## ORGANOAK

### OSOKO BILKURA

Presidenteak zuzentzen duen Osoko Bilkura dugu Kontseiluaren erabakiak hartu eta bere nahiak agertzeko organo gorena. Presidenteak, kontseilukideek eta Idazkari Nagusiak osatzen dute Kontseiluaren Osoko Bilkura. Osoko Bilkurak ondoko eskumenak dauzka:

- Presidentearen bete behar duen pertsona proposatzea Lehendakariari eta, Osoko Bilkuraren arlo horretako erabakirik egon ezean, kargua bete behar duen pertsonari buruzko kontsulta jasotzea Lehendakariaren eskutik.
- Kontseiluari esleituriko eginkizunak betetzean, erabaki egokiak hartzea.
- Jardunbideari buruzko barne arautegia prestatu eta onartzea, bai eta Kontseiluaren jardunbide-arautegia gara dadin beharrezkoak diren artezpideak eta jarraibideak onartzea ere.
- Lan-batzordeak sortzea eta desegitea, haien eskumenak eta jardunbide-arautegia zehaztea .
- Kontseiluaren aurrekontua onestea.
- Kontseiluaren langileria onestea, aurrekontuan sartzeko.
- Bateriaezintasunak aztertzea eta Kontseiluko edozein kontseilukideren betebeharrak bete ez direla adieraztea.

### Batzorde Iraunkorra

Jardunbideari buruzko arautegiak sortu duela, Batzorde Iraunkorra EGABeko Presidenteak, Idazkari Nagusiak eta Kontseilua osatzen duten talde bakoitzeko lau kidek ere osa dezakete. Bere eginkizunen artean, aipatzekoa da Batzordearen Osoko Bilkuraren erabakiak betetzen direla zaintzea.

### Lan Batzordeak

Osoko Bilkuraren eginkizuna da lan-batzordeak sortzea eta horiei aginpideak esleitzea.

Lan-batzordeak ondokoak dira::

- **Gizarte Garapenerako Lan-batzordea**, Fernando Fantova Azcoaga da lan-batzorde horretako batzordeburua.
- **Ekonomiaren Garapenerako Lan-batzordea**, Arantza Estefanía Larrañaga da lan-batzorde horretako batzordeburua.
- **Memoria Sozioekonomikoa prestatzeko Lan-batzordea**, Jon Barrutia Güenaga da lan-batzorde horretako batzordeburua.

### Pertsona bakarreko organoak

Kontseiluak pertsona bakarreko bi organo ditu, Presidentzia eta Idazkaritza Nagusia.

#### Presidentzia

Kontseiluaren ordezkari du eta horren jarduerak artezten ditu; gainera, bilkuren deiak egin, horietan buru jardun eta moderatu egiten ditu.

#### Idazkaritza Nagusia

Administrazio-zerbitzuak eta zerbitzu teknikoak zuzentzen ditu, Kontseiluaren funtsen gordailuzaina da eta dokumentazioa zaintzen du.

Autonomia ekonomiko-finantzarioaren printzipioa betez, bere aurrekontua onetsi eta betearazten du Kontseiluak. Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan ezarritako zenbatekoaren bidez finantzatzen da aurrekontua.

Kontratatzerakoan, Kontseiluak sektore publikoaren kontratuen arloan indarrean dagoen legeria bete behar du, herri administrazioetat jotzen den erakundea baita.

# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

## II. KAPITULUA JARDUEREI BURUZKO TXOSTENA

### EGAB-EN LEGEAN EZARRITAKO EGINKIZUNAK GAUZATZEA

#### IRIZPENAK EMATEA:

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Legearen 3. artikulua ezarritakoari jarraiki, 2022an, Euskadiko EGABek hamazazpi irizpen eman ditu: horietako lau lege aurreproiektuei buruz, hamabi dekretu-proiektuei buruz eta bakarra plan bati buruz.

#### **1/22 IRIZPENA, urtarrilaren 14koa, "EAEn Aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jarduera antolatu eta gainbegiratzeari buruzko Dekretu Proiektuari buruzkoa"**

**Batzordea:** Ekonomia Garapenerako Batzordea

**Sarrera-data:** 2021eko abenduaren 21ean

**Emaitza:** Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz, egokia da Ekonomia eta Ogasun Sailak prestatu duen "EAEn aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jarduera antolatu eta gainbegiratzeari buruzko dekretu-proiektua" izapidetzea, kontsulta-organo honek egindako gogoetak aintzat hartuta.

Aipaturiko dekretuaren helburua da aseguruaren banaketari buruzko Estatuko oinarritzko araudia egokitzea EAeko Administrazioak arlo horretan dituen antolakuntza-berezitasunetara, eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko aseguru-banatzailen eta berraseguruaren Administrazio Erregistroa kudeatzeari dagokionez –hala, erregistro horretan izena eman beharko dute, jarduerari ekin aurretik– bai eta haren administrazio-kontrolari dagokionez ere.

Halaber, kontabilitateko betebeharrak zehaztu dira, bai eta estatistika- eta kontabilitate-informazioa eta negozioarena eta pertsona nahiz erakunde banatzailen gaitasun profesionalari buruzko informazioa aseguruak gainbegiratzeko ardura duen organoari igortzeko betebeharra ere.

Dokumentuari argitasun handiagoa emateko, oro har, definizioen artikulua txertatzea iradoki du EGABek, nahasgarria izan daitekeen terminologia zehazteko helburuz.

Aurrekoaz gain, irizpenak berariazko gogoeta batzuk eman ditu, gehienbat, dekretuaren eduki zehatza eremu horretan aplikatzekoa den Estatuko araudiarekin lerrotzeko asmoz, bai dekretuaren betebeharreko subjektuak zehazteari dagokionez, bai Erregistroan inskribatutako guztien betebeharrari dagokionez

#### **2/22 IRIZPENA, maiatzaren 25koa, "Bidaia-agentziei buruzko Dekretua bigarren aldiz aldatzen duen Dekretu Proiektuari" buruzkoa**

**Sarrera data:** 2022ko urtarrilaren 11a

**Batzordea:** Gizarte Garapenerako Batzordea

**Emaitza:** Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egokitzen du Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak landutako "Bidaia-agentziei buruzko Dekretua bigarren aldiz aldatzeko Dekretu-proiektua" izapidetzea, kontsulta-organo honek egindako gogoetak aintzat hartuta.

Dekretuaren xedea da bidaia-agentzien arloko EAEko legeria Europako betekizunetara egokitzea, zehazkiago, kaudimengabeziaren aurreko bermeen eremuan izandako aldaketei dagokienez; izan ere, horren aplikazio praktikoa, kasu honetan, EAEko Administrazioari dagokio, hain zuzen ere, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari.

Abenduaren 21eko 23/2019 Errege Lege Dekretuaren bidez emandako 2015/2302/EB Zuzentarauaren transposizio-araudia osatzen du adierazitako dekretuak. Esandako Errege lege-dekretuak Kontsumitzaileen Defentsarako Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina aldatu zuen eta, ildo horretan, EAEko Administrazioak ezarri behar ditu bermea eratzeko eta zehapen-araubidea taxutzeko baldintzak.

Dekretua aldatzeko beharra balioeste aldera, EGABek dekretu-proiektuaren testuinguru juridikoa aztertu du, Erkidegoko legeriak eta, era berean, transposizioari buruzko Estatuko araudiak egindako aldaketak aletuta. Horren haritik, irizpenak dioenez, aldaketak aukera ematen du Europar Batasuneko kide izateak dakartzan betebeharrak betetzeko, eta, horrela, Europako Batzordeak beste arau-hauste prozedura batzuk hasaraz ditzan saihesten du.

Edukiari gagozkiola, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egiaztatu du dekretuak euskal araudiak erantzun behar dien bi gai nagusiak jorratzen dituela, bereziki, definitu diren berme-modalitateen aplikazioa, eta, bestetik, bat datorrela Turismoaren Arloko Konferentziak eraturako lantaldean adostu duen testuarekin, autonomia-erkidegoen arteko lehia-egoerak saihesteko helburua daukalarik.

### **3/22 IRIZPENA, otsailen 15ekoa, "Enplegu Plan Estrategikoa 2021-2024ri" buruzkoa**

**Batzordea:** Sozial Garapenerako Batzordea

**Sarrera data:** 2022ko ekainaren 14a

**Emaitza:** Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen aburuz, egokia da "2021-2024 aldiko Enplegu Plan Estrategikoa" delakoa izapidetzea. Plan horren xederik behinena da enplegu gehiago sortzea eta enplegu hori kalitatezkoa izatea, pertsona guztiak gizarteratzea eta laneratzea ahalbidetuko duten baldintzetan, bai eta egungo ingurumari soziosanitariotik eratorritako erronkei eta gaur egun nagusi diren eraldaketa digital, energetiko eta klimatiko, demografiko eta sozialetatik eratorritako erronkei ekitea ere. Ildo horretan, planak erronka horiei guztiei aurre egiteko, lan-merkatuan sortu diren eskakizun berriei erantzuten die, eta, bestetik, langileek enpleguari eusteko edo enplegu berria lortzeko izan ditzaketen beharrei erantzuten die, planaren esparruan garatutako estrategiak (EVE 2030) egiten duen bezala.

Horregatik, EGABek 2021-2024 aldiko Enplegu Plan Estrategikoa babesten du, eta aldekotzat jotzen du pandemiaren osteko suspertze sozioekonomikoa bultzatzen laguntzea, hiru trantsizioak (digitala, berdea eta demografikoa) ezartzen laguntzea eta kontratu sozial berria lantzeko enplegu barneratzaile edo inklusiboa eta kalitatezkoa sustatzen laguntzea.

Irizpenean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak gogoeta egin du lau urteko plan horrek daukan eginkizunaz, sektorearen baitako hurbileko plan eta estrategien eginkizunez batera, hala nola 2030eko Enpleguaren Euskal Estrategiarenaz. Estrategia horrek proposatzen duenez, enpleguak izan behar du pertsonen eta gizartearen funtsezko ardatza, eta kalitatea, inklusioa eta berdintasuna sustatzen duten enplegu-politikak aldeztu ditu, bai eta lankidetzaren politika garatzea ere. Inguruabar horretan, EGABek adierazi du hizpide darabilgun plana estrategiatik

# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

aldentzen dela, hainbat alderditan jasotako aldaketengatik: helburu estrategiko eta operatiboetan, jardueraren eremuetan eta ildo estrategikoetan, 2030eko EEEn helburu, sektore eta gako estrategikoen aldean.

Gainera, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak ez du antzeman Berpiztu programak nabarmendu dituen 3 trantsizioen garrantzia (digitala, berdea eta demografikoa) behar bezala islatuta dagoenik; hartara, batzordeak adierazi du planean jasotako ekintzak ez direla nahikoak, enpleguan duten garrantzia kontuan hartuta. Adibidez, trantsizio teknologiko eta digitalean, adierazi du prestakuntzak oinarritzko gaitasun digitalez jabetzetik harago joan behar duela, eta ohartarazi du proposamen hori ez dela arazo guztien konponbidea, eta, aldi berean, beharrezkoa izango litzatekeela enpleguaren sorreran eta hobekuntzan duen eragina neurtzea. Trantsizio demografiko eta sozialean, aldiz, adierazi du ekintzek enpresen zahartzapena dutela aztergai, baina ez dutela kontuan hartzen egungo paradoxazko lan-egoera, non langabeen kopurua handia den, eta ez dion inola ere erantzuten enpresek eskatzen duten langile kualifikatuen kopuruari.

EEEk erakunde arteko eta sail arteko politika lehenesten duen heinean, eta gizarte-eragileen arteko lankidetzaren bultzatzen duen bezala, EGABek proposatu du Gizarte Elkarrizketarako Mahaiak parte-hartze handiagoa izan dezala planaren aldietan, haren lankidetzaren garrantzia aintzat hartuta ekonomia, gizarte, lan eta osasun arloetan gertatzen diren aldaketei loturik. Era berean, Administrazio Publikoari eman zaion zeregin eskasa azpimarratu du, kontuan harturik oso eginkizun garrantzitsua hartuta duela bere gain, bai enpleguaren sorreran, bai enpleguaren kalitatean. Azkenik, adierazi du planak jaso behar dituela gainerako sailen ekintzak, enplegu-politikarako berariaz prestatutakoak, hots, politika ekonomikoetatik eratorritako ekintzez kanpokoak, bigarren mailako eragina baitute enplegu-politikan. Ildo horretan, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak

Horien artean, lehenik eta behin, planean jasotako ekintzen egoerari buruzko ebaluazio eta jarraipen egokia egitea gomendatu du, helburuen lortze-maila neurtzeko balio duten adierazle kuantitatiboak erantsita. EGABen ustez, diagnostikoak ahulezien, mehatxuen, indarguneen eta aukeren azterketa deskribatzaileegia dakar, bat ez datorrena ondoko AMIA matrizearen ahulezia eta indarguneekin. Azkenik, EGABek adierazi du aukera berdintasunari buruzko zeharkako sektorea lausotuta gera litekeela, berdintasunaren arloan programatzen diren ekintzetarako zuzkidura ekonomiko espezifikorik esleitzen ez duelako.

Bide horretan, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak uste du beste bi erronka demografiko badaudela, eta bi-biei ekin behar zaiela enplegu-politika egokia gauzatzeko. Lehenengoa, lan-merkatuaren langile kualifikatuen eskaerari erantzuteko mentsari lotuta dago; eta bigarrena, aldiz, biztanleriaren zahartzearekin lotuta dago, horrek ere eragin handia baitauka lanpostuak betetzeko eskulan urria dakarrelako.

Horren haritik, EGABek dio enpresek enpleguaren eta kualifikazioaren arloan dituzten beharrei erantzuteko proposamen egokiago baten hutsunea sumatzen duela, batez ere mikroenpresek eta ETEek dituzten beharrei erantzuteko, horiei eragingo baitie gehien lan-merkatuaren eraldaketak.

#### **4/22 IRIZPENA, otsailaren 25ekoa "etxebizitza legez okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko Dekretu Proiektuari" buruzkoa**

**Batzordea:** Gizarte Garapenerako Batzordea

**Sarrera data:** 2022ko otsailaren 4a.

**Emaitza:** Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz, egokia da Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak prestatutako dekretu-proiektua izapidetzea. Proiektu horren xedea da etxebizitza bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa arautzea, dela etxebizitza bat alokairuan esleituz, dela zuzkidura-bizitoki bat kanon bati atxikita esleituz, dela etxebizitzarako prestazio ekonomikoa erabiliz, etxebizitza edo zuzkidura-bizitokia esleitzea ezinezkoa denean.

Dekretu-proiektua izapidetzeko beharra balioesteko, EGABek hari doakion testuinguru ekonomiko, sozial eta juridikoa aztertu du. Lehenengoaz denaz bezainbatean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak aipatu du biztanleriak etxebizitzarik lortzeko duen zailtasuna, eta adierazi du autu horrek ez diela soilik geruza pobreenei eragiten. Esparru juridikoari dagokionez, nabarmendu du etxebizitzarik izateko eskubidea erabat aintzatestekoa dela, baina eskubide hori benetan eta eraginkortasunez gauzatzek gure gizarte osoaren erronka izaten jarraitzen duela; beraz, egoerak botere publikoen jardura positiboa galdatzen du.

2015. urtean aldarrikatu zen Etxebizitzaren Euskal Legeak jauzi kualitatibo garrantzitsua ekarri du etxebizitza duina izateko eskubidea praktikan gauzatzeko bidean, eta dekretu-proiektua lege honen xedapenen eraginkortasun osoaren beharrezko osagarria da; EGABek egoki irizten dio alderdi horri.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak adierazi duenez, dekretuak erregelamenduz garatzen ditu Euskadiko Etxebizitzari buruzko Legeak etxebizitza legez eskuratzeko eskubide subjektiboaren inguruan ezarritako xedapenak, eta, horretarako, eskubide horren titulartasuna baliatu ahal izateko betekizunen aplikazio praktikoa gauza dadin, beharrezko zehaztapenak ematen ditu, eta eskubide hori aitortu, egiaztatu eta betetzeko prozedura egokiak ezartzen ditu.

Gainera, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak atseginez ikusi du dekretu-proiektua ez dela mugatu etxebizitza esleitzeari edo zuzkidura-bizitokia esleitzeari lotutako alderdiak garatzera, ezpada, etxebizitzaren prestazio ekonomikoari dagokiona ere jaso duela, ohiko bizilekua izateko etxebizitza edo bizitokia esleitzea ezinezkoa denean eman beharrekoa. Ildo horretan, EGABek ohartarazi du prestazio ekonomikoari eutsi egin behar zaiola ohiko etxebizitzaren esleipenaren ordezkot aukera gisa, etxebizitza esleitzeak beti lehentasunezko neurria izan behar duelarik.

Era berean, DSBEaren egungo Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriaren ordezkot, etxebizitzarako prestazio ekonomikoa emateko ahalegina balioetsi du irizpenak. Horrek egiturazko tresnak ematen dizkie etxebizitza-premiei aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten gizatalde guztiei, eta bi prestazioen arteko igarobide koordinatu eta lasaia diseinatu du.

Dekretuaren edukiari dagokionez, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, zioen azalpenak araudiaren berezko alderdiei erreparatu beharko lieke, araudia egiteko barne-prozesuari buruzkoak saihestuta. Gainera, EGABek uste du beharrezkoa dela erregulazio berria eratzeko onartu diren irizpideak azaltzea, inkoherentziak murrizteko eta hura prestatzeko xedea lortzeko, hau da, gizarte-bazterkeria ekiditea.



# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

Irizpenak azaldu beharreko hainbat gai azpimarratu ditu, hala nola eskubide subjektiboa eta prestazio ekonomikoa eskuratzeko ezarritako gutxieneko adina, haren hileko zenbatekoaren gehienekoa, edo urtebeteko benetako bizilekua edo Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena eman zenetik 3 urteko antzintasuna eskatzeko arrazoiak. Horiei dagokienez, EGABek uste du eskatutako baldintzek inkongruentziak dituztela eta ez datozela bat dekretu-proiektuaren xedearekin.

Azkenik, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz, dokumentua konplexua da, eta haren arkitektura berrikusi behar dela uste du, arau argia, zehatza eta osoa izan dadin, eta interesdunei behar den informazioa behar bezala eman diezaien.

## **5/22 IRIZPENA, martxoaren 21ekoa, "14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzen Dekretu Proiektuari" buruzkoa**

**Batzordea:** Sozial Garapenerako Batzordea.

**Sarrera data:** 2022ko otsailaren 28a

**Emaitza:** Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak txostena egin du Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak prestatutako dekretu-proiektuari buruz. Txostenak ondorioztatu du aurrera egin behar dela familia-politika integralaren bidean, seme-alaben hazkuntzak eragiten dituen gastuak arintzeaz haratago, betiere laguntza ekonomikoek betetzen duten zeregina ukatu gabe. Horretarako, familia eta lana bateragarri bihurtzeko neurri eta baliabide berriak aztertzeko gomendioa eman du, gizarte osoaren eta, bereziki, erakunde publikoen erantzunkidetasunetik abiatuta.

Legegintza-ekimenaren xedea da Eusko Jaurlaritzak familia eta lana bateragarri egiteko asmoz ematen dituen laguntzak arautzea, zehazki, seme-alabak 14 urte bete arte zaintzeko langileak kontratatzeari lotutako laguntzen lerroa. Izan ere, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak erabaki du 0 eta 14 urte bitarteko seme-alaben zaintzaileen kontratazioa etengabe diruz laguntzea, eta zaintzaileak kontratatzeagatik familiei ematen zaizkien laguntzei buruzko araudi guztia legezko gorputz koherente bakarrera biltzea.

Irizpenak dekretu-proiektuak Familia eta Haurtzararen aldeko Euskal Itunari egokitzeko asmoa balioesten badu ere, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, familia-politika integrala erdiesteko, beharrezkoa da Familiei Laguntzeko Legean araututako laguntza ekonomiko guzti-guztiak gara daitezen, hala nola, haur-eskoletako gastuak ordaintzeko dirulaguntzari lotutakoa; gure eskumeneko laguntza-lerroa ez dadila erator 164/2019 Dekretutik; eta familiei gizarte-, ekonomia-, kultura- eta lan-esparruak behar bezala bateratzeko aukera emango dien zerbitzu- eta ekipamendu-sorta zabala finka dadin.

Irizpenaren xede den laguntza ekonomikoari dagokionez, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak hainbat gogoeta egin ditu, besteak beste, eskaera eta izapidetze elektronikoari buruz, eskabideak ebazteko epeari buruz, beste laguntza batzuekiko bateraezintasun-araubideari buruz, dirulaguntza jasotzeko familia-errentaren muga ekonomikorik ez egoteari buruz, edo Gizarte Segurantzako Sistema Berezi baten barruko kontratazioari buruz.

Azken kontu horri dagokionez, ez EGABek ez du ulertzen kontratazioa Etxeko Langileentzako Sistema Bereziaren altan dauden pertsonen kontratazioa mugatzea; izan ere, une honetan, kontziliazioa errazteko hainbat zerbitzu eskaintzen dira, sistema horri lotzen ez zaizkionak, hala nola, goizeko harrera-zerbitzua.

Kontuan harturik 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzea helburu duten laguntzek eragin txikia dutela, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egokitzat jo du, laguntza ekonomikoekin batera, kalitatezko zerbitzu eta ekipamenduen eskaintza nahikoa zabala izan dadin, familiek nahi beste seme-alaba izan ditzaten eta euren bizitzako esparru guztiak egoki uztartu edo bateragarri bihur ditzaten, familia-politika integralagorantz eboluzionatuz joateko.

Hori guztia dela eta, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak beharrezkotzat jotzen du kontziliazio-neurri eta -baliabide berriak aztertzea, besteak beste, honako hauek: haur-eskoletako gastuak diruz laguntzeko laguntza-lerroa erregelamendu bidez garatzea; 3 urtetik beherako haurrentzako eskola publikoak, doakoak edo eskuragarriak bultzatzen jarraitzea; eskola-orduetatik kanpoko harrera- eta zaintza-zerbitzuak diruz laguntzea; ikastetxe publikoetan, zaintza- eta kontziliazio-zerbitzu eta/edo azpiegitura eskuragarriak prestatzea eskolaz kanpoko jarduerak egiteko; oportretan, aisialdiko azpiegitura eta zerbitzu publiko eskuragarrien eskaintza handitzea; edo 16 urtetik beherako seme-alabak dituzten familientzako zaindarien poltsa profesionalak eratzea eta kalitatezko enplegua sortzea helburu duten proiektuak abian jar daitezzen bultzatzea, poltsa horietan, Berdintasun Ministerioaren Corresponsables planean ezarritako profil profesionalak sustaturik.

### **6/22 IRIZPENA, apirilak 8koa "Euskal Autonomia Erkidegoko higiezin mailegu-emaielen eta kreditu higiezin bitartekarien administrazio-erregistroa eta haien jardueraren administrazio-kontrola arautuko duen Dekretu-proiektuari" buruzkoa**

**Batzordea:** Ekonomia Garapenerako Batzordea

**Sarrera data:** 2022ko martxoaren 23a

**Emaitza:** Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz, egokia da Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak prestatutako dekretu-proiektua izapidetzea. Proiektu horren helburua da higiezin kreditu-bitartekarien eta higiezin mailegu-emaielen ikuskapenaren arloko Estatuko oinarrizko araudia egokitzea, EAEko Administrazioaren eskumenen esparruan, bereziki, erregistroak kudeatzeari eta jardueraren administrazio-kontrolari dagokienez. Hala, helbururik behinena da Euskal Autonomia Erkidegoko Higiezin Kreditu Bitartekarien Erregistroa eta Higiezin Mailegu-emaielen Erregistroa sortzea eta arautzea, bai eta euskal lurraldean bakarrik jarduten duten agente horien gainbegiratzearen, jardueraren jarraipenaren, ikuskapenaren eta zehapenaren arloko betearazpen-ekumenak arautzea ere.

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak aldekotzat jo du araua, eta EAEko higiezin kreditu-bitartekarien, higiezin mailegu-emaielen eta kontsumitzaileen segurtasun juridikoaren hobekuntzat hartu du. Hala eta guztiz ere, irizpenean adierazi da dokumentuko atal batzuen testua berrikusi behar dela, errazago uler dadin, eta Erregistroaren egitura eta funtzionamendua legegintza-ekimenean bertan garatu behar direla, erregulazioa erabat definituta gera dadin.

# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

## [7/22 IRIZPENA](#), ekainaren 9koa “Euskadiko Euskal Autonomia Erkidegoan elikagaien hurbileko salmenta arautzen duen Dekretu-proiektuari” buruzkoa

**Batzordea:** Ekonomia Garapenerako Batzordea

**Sarrera data:** 2022koa maiatzaren 19a

**Emaitza:** Euskadiko Ekonomia Batzordeak egokitzat jo du Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak prestatutako dekretu-proiektua izapidetzea, irizpenean txertatutako gogoetak aintzat hartuta.

Proiektuaren xedea da, funtsean, hurbileko salmenta arautzea, Euskadin merkaturatze-sistemari atxikitako elikagaien baldintza higieniko-sanitarioak, trazabilitatekoak, etiketatzeakoak eta publizitatekoak betetzen direla bermatzeko, eta Europako araudien aplikazio-eremutik kanpo dauden zenbait jardueraren baldintzak eta betekizunak arautzea, oinarrizko ekoizkinen kantitate txikiak azken kontsumitzaileari emateari dagokionez, hurbileko salmenta dela bide.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen arabera, arauak lagundu egingo du, elikagaien segurtasunari dagokionez, hurbileko salmentaren legeria konplexu eta anitza ordenatzen eta sistematizatzen, baldintza higieniko-sanitarioak, produktuaren etiketatzea eta elikagaien trazabilitatea ere kontuan hartuta, eta, gainera, segurtasun juridiko handiagoa bermatzen die lehen mailako produktuen kantitate txikiak azken kontsumitzaileari ematen dizkieten ekoizle txikiei. Era berean, kontsulta-organoak aldekatat jo du dokumentua Europako “Etxaldetik Mahaira” (From Farm To Fork) estrategiarekin bat etorritz idatzi izana. Estrategia horrek elikadura-osasuna eta elikadura osasuntsua sustatzen ditu, ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-esparruan, elikadura-sistema iraunkorra lortzeko.

Irizpenean jasotako gogoetei dagokionez, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak gomendatzen du ekimenarekin batera beste tresna batzuk erabiltzea, hurbileko salmenta eraginkortasunez garatzeko ekosistema lagunkoia eratzen laguntzeko. Irizpenean jasotako gogoetei dagokionez, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak gomendatu du ekimenarekin batera beste tresna batzuk erabiltzea, hurbileko salmenta eraginkortasunez garatzeko ekosistema lagunkoia eratzen laguntzeko. Ildo horretan, lehen sektorea ikusarazteko eta landa-garapenari ekarpen handiagoa egiteko beste ekintza batzuk ezartzeko eskatu du, kontsumitzaileek hurbileko elikagaiak eskuratzeko aukera gehiago izatea, ekoizpen eta salmenta iraunkorragorantz berregituratzea, eta ekoizle txikiei araudi-aldaketetara egokitzen laguntzeko aldi iragankorra ezartzea. Era berean, ohartarazi du proiektu honek indargabetu nahi dituen erlezaintza eta mahastia birmoldatu eta berregituratzeko sustapenari edo laguntzari buruzko bi dekretuak ez direla ordeztu antzeko ezaugarriak dituzten beste dekretu batzuek, batzordeak beharrezkotzat jotzen baititu Euskadin nekazaritzako eta abeltzaintzako ekosistema iraunkorra eraikitzeko.

## [8/22 IRIZPENA](#), ekainaren 9koa “Euskal Autonomia Erkidegoko txerri-azienda estentsiboaren ustiategiak antolatzeako oinarrizko arauak garatzeko Dekretu-proiektuari” buruzkoa

**Batzordea:** Ekonomia Garapenerako Batzordea

**Sarrera data:** 2022ko maiatzaren 20a

**Emaitza:** Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz, egokia da Euskal Autonomia Erkidegoan txerri-azienda estentsiboko ustiategiak antolatzeako oinarrizko arauak garatzen dituen dekretu-proiektua izapidetzea.

Dekretu horren xedea da 1221/2009 Errege Dekretua, Txerri-azienda estentsiboko ustiategiak antolatzeke oinarrizko arauak ezartzen dituen eta untxi-ustiategiak antolatzeke arauak ezartzen dituen 1547/2004 Errege Dekretua aldatzen duena, Euskal Autonomia Erkidegoan garatzea.

EGABek emandako irizpenean, egoki eta aukerakotzat jo du dekretua, eta bere eskumeneko jardura ekonomikoan ondo zehaztutako eta antolatutako arau-esparrua lantzeke aurrerapausotzat jo du.

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak beharrezkotzat jo du proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan, jardura horren erregulazioa eta antolamendua hobetzeko oinarrizko araudia garatzen baitu, aintzat hartuta euskal txerriaren sektoreak ezaugarri bereizgarriak dituela inguruko beste autonomia-erkidego batzuetan sektore berak dituenekin alderatuta, eta kontuan hartuta jardura ekonomiko horrek etorkizunean izan dezakeen garrantzi handia, EBko ingurumen-, osasun- eta nekazaritzako elikagaien politiken joera berrien ondorioz.

Dokumentua prestatzeari dagokionez, EGABek aldekotzat jo du hiru lurraldeetako foru aldundiei eta erakunde profesionalei, elkarteei eta tokiko erakundeei aldeztetik kontsulta egin izana, baina adierazi du dokumentu horretan lege-testuetara igortzeke erabili den teknikak ez duela edukia ulertzen laguntzen.

## **9/22 IRIZPENA, ekainaren 17koa, "Euskal Autonomia Erkidegoko 7-15 urteko biztanleen aho-hortzen osasunaren arloko prestazio sanitarioari buruzko Dekretu-proiektuari" buruzkoa**

**Batzordea:** Sozial Garapenerako Batzordea

**Sarrera data:** 2022koa maiatzaren 27a.

**Emaitza:** Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egokitzen jo du Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak prestatutako dekretu-proiektua izapidetzea, eta zenbait gogoeta egin ditu aztertutako testua hobetzeko.

Dekretu-proiektuaren helburua da aho-hortzen osasunaren arloko osasun-prestazioaren edukia eta irismena ezartzea, EAEn bizi diren eta Euskadiko Osasun Sistemaren kargura osasun-laguntza publikoa jasotzeke eskubidea duten 7 eta 15 urte arteko biztanleentzat, bai eta prestazio hori kudeatzeko modua ere.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Batzordeak adierazi du, duela gutxi, Osasun Ministerioaren prestazioen, aseguramenduaren eta finantzaketaren Batzordeak eguneratu egin dituela Osasun Sistema Nazionalaren zorro erkidearen prestazioak aho-hortzen osasunaren arretari dagokionez, eta prestazio berriak pixkanaka hastea proposatu duela, 6-14 eta 0-5 urte bitarteko biztanle-taldeekin, 2022ko abenduan eta 2023ko abenduan, hurrenez hurren, autonomia-erkidego bakoitzak ezarritako plangintzaren eta urgazpen-antolamenduaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoari doakionez, Euskadiko Aholku Batzordeak nabarmendu du PADIK delakoak edo Haurren hortzak zaintzeke programak badituela lehendik jasota Osasun Sistema Nazionalaren zorro berriak dakartzen prestazioak, 7 eta 14 urte bitarteko biztanleentzat, eta, gainera, zorro erkidean jasotzen ez diren tratamenduak ere eskaintzen dituela, zorroetik kanpo berariaz utzitako tratamendu batzuk ere bai.

Adierazi du, halaber, dekretu-proiektuak Osakidetzaen Haurren Hortzak Zaintzeke Programaren (PADI) egungo prestazioak hobetzen lagunduko duela, baina adierazi du 7 urtetik beherako biztanleriak ere programaren xede izan beharko lukeela, pertsona bakoitzaren ahoko garapena desberdina delako, eta programak lortu beharreke helburua bikoitza izan behar duela uste duelako; batetik, adingabe gutzian aho-hortzetako osasuna bermatzea hasierako adin-

# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

taldeetatik, eta, bestetik, zerbitzua lehen mailako arretatik hornitzea lortzea, haur eta gazteen arretan espezializatutako Osakidetzako aho-hortzetako osasun-unitateen bitartez.

Testuinguru horretan, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak aldekotzat jo du Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko aseguramendu eta kontratazio sanitarioko Zuzendaritzak eta Osakidetzako ordezkariak berriki ondorioztatu izana Osakidetzak aho-hortzen osasun-zorroa handitzeak dakartzan zerbitzu berriak ezartzeko gaitasun nahikoa duela, Ministerioak horietako bakoitzerako ezarritako epeak beterik, eta Osakidetzak zerbitzu berri horiek baliabide propioekin emango dituela.

## **10/22 IRIZPENA, uztailaren 12koa, “Euskadiko Euskal Autonomia Erkidegoan Jasangarritasunerako Hezkuntza sustatzeko dekretu-proiektua”ri buruzkoa**

**Batzordea:** Gizarte Garapenerako Batzordea

**Sarrera data:** 2022koa ekainaren 21a.

**Emaitza:** Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz, egokia da “Euskal Autonomia Erkidegoan jasangarritasunerako hezkuntza sustatzeko dekretu-proiektua” izapidetzea. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak prestatu du dekretu-proiektu hori, eta horren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan jasangarritasunerako hezkuntza bultzatzea, indartzea eta sendotzea, gure bizimodua jasangarritasuna aintzat hartzen duen kultura berriranzko trantsizioa ahalbidetzeko.

EGABek funtsezko elementutzat jotzen du jasangarritasunerako hezkuntza, gizarteak ingurumenaren izaera uler dezan eta ingurumen-arazoak prebenitzen eta konpontzen eta ingurumenaren kalitatea modu arduratsuan eta eraginkorrean kudeatzen parte hartzen laguntzen duten kontzientzia, ezaupideak, balioak eta portaerak har ditzan.

Era berean, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak uste du jasangarritasunerako hezkuntza alderdi estrategikoa dela egungo garapen-eredua jasangarritasunerantz eta ekitaterantz bideratzeko, eta egoki balioesten du arauak hezkuntza sustatu eta garapen iraunkorraren printzipio edo abiaburu handiekin lerrotu nahi izatea, hezkuntza eraldatzaileaz hitz egin ahal izateko.

Testuinguru horretan, organo aholku-emailea bat dator jasangarritasunera bideratutako antolaketa- eta hezkuntza-kalitateko eredu berriak garatzeko bideak aktibatzen laguntzeko helburuekin, bai eta jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntzako politikak indartzearekin ere, ingurumenaren babesaren eta kontserbazioaren arloan herritarren erantzunkidetasunean aurrera egiteko xedez, jasangarritasunerako hezkuntzaren arloan lankidetzak ekintzak sustatuz, koordinatuz eta gauzatuz, eta arreta ekintza eraldatzaile eko-soziala sustatuz.

Arauaren edukiari dagokionez, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak adierazi du trantsizio ekologiko justua txertatu beharko litzatekeela dekretuaren helburuetan, enpleguari eta haren kalitateari hertsiki lotutako kontzeptua baita, eta funtsezkotzat jo du hori jasangarritasuna sustatzeko jarraibideekin bateratu ahal izateko. Pertsona adituak eta jardunbide egokiak trukatzeko ekosistemari dagokionez –dekretuak eratu nahi du ekosistema hori–, proposamenean jasota ez dauden ingurumen-arloko edo ingurumen-hezkuntzako erreferentziazko erakundeak baliatzeko aukera ematen duen tresnaren bat ezartzea proposatu du EGABek.

Irizpenean, batzordeak ohartarazi du Berrikuntza, Trebakuntza eta Ezagutzaren Kudeaketarako Zentroaren osaerak, arestian aipatutako ekosistema egituratzen duenak, ez duela kontuan hartzen LHko, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe garrantzitsurik, hala nola TKNIKA edo Berritzeguneak. Era berean, adierazi du kanpoan uzten dituela jasangarritasun-arloko erakunde esanguratsu batzuk, esaterako, BC3 Basque Centre For Climate Change-Klima Aldaketa Ikergai, ekosistema horren helburua lortzeko garrantzi handia izan dezaketenak, eta, beraz, ekosistema horren helburu nagusia jadesten izan dezaketenak, hau da, ezagutza partekatzeko eta esperientziak trukatzeko sinergiak sortzea jasangarritasunerako hezkuntzaren arloan lan egiten duten ikastetxeen eta beste eragile batzuen artean.

Ekosistema osatzen duten atalei dagokienez, alde batetik, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak gomendatu du enpresak eta horiek lan-aldian betetzen duten eginkizuna kontuan hartzea, dekretuak pertsona baten bizitza osoko ikaskuntza arautzen duela oinarri hartuta, eta pertsona horiek jasangarritasunaren oinarriak euskal ekonomian txertatzeaz arduratzen direla oinarri hartuta. Bestalde, EAEko kontsulta-organoaren ustez, komenigarria da gizarte-eragileen esku-hartzea eta horien zeregina argitzea, ustez, ez baita kontuan hartu Berrikuntza eta Trebakuntza Zentroko Kudeaketa Organoaren osaeran, ezta hura aholkatzen duen Batzorde Teknikoan ere. Era berean, 'Eskola Jasangarria' ziurtagiria aitortzeko eta esleitzeko prozesuen Kudeaketa Organoaren osaeran ere ez dira kontuan hartzen, ezta ziurtapen-prozesu horien Ebaluazio Batzordean ere.

Arauan erabilitako terminoei dagokienez, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak iradoki du "hezkuntza-arloan inplikaturako gizarte-eragileak" definizioaren ordez, "jasangarritasun-arloan inplikaturako eragileak" jartzea, dekretuaren xedean eragina izan dezaketen entitate, organismo eta erakundeak kontuan hartzeko. Gainera, zaharkitu samar geratu diren kontzeptu batzuk berrikustea iradoki du EGABek, hala nola "etengabeko prestakuntza" edo "bizitza osoko hezkuntza" terminoak. Horrela, adierazi duenez, lehenengoaren ordez, "bizitza osoko ikaskuntza" edo "laneko prestakuntza" erabili da, eta bigarrenaren ordez, "bizitza osoko ikaskuntza".

Era berean, irizpenak iradoki du jasangarritasunerako hezkuntzaren eremuan aipatu diren gabeziak berresten dituzten datuak jasotzea komeniko litzatekeela; kasurako, "jasangarritasunerako hezkuntzak unibertsitatez kanpoko hezkuntza-eremuan egun daukan barneratze-maila hobetu daiteke", horrela, kontuan hartu ahalko baitira etorkizuneko ekimenetan.

Azkenik, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz, egokia eta koherentea da Eusko Jaurlaritzak beharrezko neurriak bultzatzea dituzten ikastetxeetan dauden eraikinek eraikin jasangarrien baldintzak bete ditzaten

# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

## 11/22 IRIZPENA, irailaren 27koa “Trantsizio energetikoari eta Klima-aldaketari buruzko Lege- aurreproiektuari” buruzkoa

**Batzordea:** Ekonomia Garapenerako Batzordea

**Sarrera data:** 2022ko ekainaren 24a

**Emaitza:** Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egokitzat jo du Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak egindako lege-aurreproiektua izapidetzea, eta zenbait gogoeta egin ditu testua hobetzeko proposamen gisa.

Arauaren xedea dugu esparru juridiko egonkorra ezartzea Euskadin neutraltasun klimatikoa lortzeko, beranduenez ere, 2050. urtean, eta lurraldearen erresilientzia handitzea klima-aldaketaren aurrean, ekitatea eta elkartasuna bermatzen dituen trantsizio justua eta jasangarria, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-ikuspegia landuta.

Irizpenak jasotzen duenez, arauaren helburua da arau-esparrua Euskadiko errealitatera modu eraginkorren egokitzea, eta klima-aldaketaren arloan hartutako nazioarteko konpromisoak betetzea. Horretarako, zero emisio garbiko ekonomiarantz doan trantsizio energetikoa egiteko estrategiak eta tresnak proposatzen ditu arauak, euskal sozioekonomiaren errealitatea eta Euskadik etorkizunean izango dituen erronkak eta aukerak kontuan hartuta.

EGABen ustez, txalagarria da arauak epe luzerako (2050) helburuei erantzuna ematea helburu duten proposamenak jorratzea, eta adierazi du bat datorrela arauaren ikuspegiarekin eta egiturarekin, bai eta arauaren oinarrian dauden parametroekin ere, bereziki, bidezko trantsizioarenarekin. Hala ere, organo aholku-emaileak uste du trantsizio justuaren kontzeptuak indarra hartu beharko lukeela legearen zioen azalpenean, eta adierazi du enpleguari eta enpleguaren kalitateari eustea trantsizio justu horren funtsezko osagaietako bat dela.

Era berean, azpimarragarria iruditu zaio ingurumen-politikak eta ekonomiaren nahiz gizartearen garapen-politikak aurkakoak ez izatea eta testuinguru sozial zein ekonomiko berria eraikitzeko helburuarekin bat egitea, egokitasunari eta bidezko tratuari dagokienez.

EGABek ontzat jo du arauak administrazioen arteko elkarlaneko gobernantza eta eragileen arteko lankidetzak publiko-privatua indartzeko nahia, eta iradoki du euskal administrazio publikoaren eta Estatuaren arteko lankidetzak nabarmendu dadin, baita Europar Batasunarekiko lankidetzak ere, dokumentuan presentzia handiagoa emanda. Gainera, parte-hartze publikoaren esparruan, komenigarritzat jo du Herritarren Batzarren zeregina definitzea, informazio-bide hutsak izango diren edo modu eraginkorrez parte hartuko duten zehaztuta, planetan ezarritako egoeraren eta helburuen ebaluazioan eta proposamenen edo bestelako beharren formulazioan txertatuta.

Obrei, produktuei eta zerbitzuei buruzko lizitazio publikoetan, enpresek karbono-aztarna edukitzeko beharrari buruz, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak eskatu du erregelamendu bidezko garapenean zehaztu daitezela betebeharrak berri horren mende jarri nahi diren sektoreak eta enpresa motak, eta iradoki du enpresaren tamaina irizpide gisa har dadila, txikienek ez baitituzte eskatutako estandarrak aplikatzeko ezagutza eta bitarteko berdinak. Gainera, enpresa-mota guztiek betebeharrak hori beren gain hartu ahal izateko aldi baterako moduak bilatzea proposatu du.

Kontseiluak karbono-aztarna ezartzeko zailtasunei buruz ohartarazi du, bai produktuetan, bai zerbitzuetan eta horniduretan, lizitazio publikoetara aurkezten diren enpresetan. Alde batetik, uste du produktuaren karbono-aztarna kalkulatzeko ezarri den 6 hilabeteko epea ez dela egokia, eta egokiagoa litzatekeela epea Erregistroari buruz sortzen den Erregelamenduan zehaztea, une horretan kalkulu-metodologiak eskuragarri egongo direlako eta hobeto jakingo dugulako sektoreei nola eragingo dien.

Zerbitzuen karbono-aztarnaren kalkulua denaz bezainbatean, euskal EGABek iradoki du kontuan hartzea zaila dela karbono-aztarna kalkulatzeko behar diren datuak edukitzea etorkizuneko arau-garapenetan eta baldintza-agirietan; izan ere, gaur egun, enpresek erakundearen aztarna kalkulatu dute, eta enpreson jarduerak oro har duen eragina ezagutzen dute, ez zerbitzu jakin batena, are gutxiago hirugarrenek garatutako zerbitzua denean. Obrei dagokienez, gainera, eraikuntza-enpresek ez dute karbono-aztarna kalkulatzeko beharrezko daturik obra egin aurretik. Hori dela eta, xedapena berrikusteko iradoki du, eta erakundearen Karbono Aztarnaren kalkulua eskatzeko proposatu du benetako kontsumoen datuetan oinarrituta, eta horren ondoriozko Murrizketa Plana, berriz, Estatuko Kode Zibilaren 7/2021 Legearen hamabigarren xedapen gehigarriarekin bat etorriz, bereziki, eraikuntzaren sektorearentzat.

Administrazio-izapideei gagozkiela, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak beharrezkotzat jo du EAEko administrazioek tresnak gara ditzaten, etorkizuneko lege horren ziozko administrazio-prozedurak ahal den neurrian arintzeko eta errazteko, enpresen kezka handienetako batzapidetzea baita.

## **12/22 IRIZPENA, iralaren 30eko, “Haur eta Nerabeen Legearen aurreproiektu”ari buruzkoa**

**Batzordea:** Sozial Garapenerako Batzordea

**Sarrera data:** 2022ko irailaren 2a

**Emaitza:** Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egokitzen jo du Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak prestaturiko “Haurren eta Nerabeen Legearen Aurreproiektua” izapidetzea, eta egokitzen jo du izaera integraleko arauzko esparru berria; izan ere, euskal ordenamendu juridikoaren barruan, sakabanaketa txikiagoa egon dadin laguntzen du, eta adingabeei eragiten dieten Estatuko eta autonomia-erkidegoko arauen interpretazioa eta aplikazioa errazten du.

Legegintza-ekimenaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoan erreferentziazko esparru juridiko berria osatzea da, haurren eta nerabeen arlo osoari dagokionez, EAEn bizi diren edo egon dauden adingabe guztiei bermatzeko ordenamendu juridikoak (nazioartekoak, Europakoak eta Estatukoak) aitoritzen dizkien eskubide eta askatasun guztiak.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen aburuz, arau bermatzailea, integrala eta zeharkakoa da, haurrak eta nerabeak zuzenbideko subjektutzat hartzen dituelako, eta hainbat termino txertatzen dituelako, hala nola maila guztietako sustapena, lege-proiektu guztietan haurren gaineko eraginari buruzko txostenen nahitaezotasuna edo haurren parte-hartzea. Hala ere, irizpenak zenbait gogoeta jaso ditu, dokumentua hobetze aldera.

Edukiari dagokionez, Euskadiko organo aholku-emaileak gomendatu du haren hedadura murriztea, erreduzantziak saihestuz eta edukiaren zati bat erregelamendu bidez garatuz, zehaztu ez diren eta geroko araudiaren mende geratzen diren gaiekin egingo den moduan. Era berean, haurren eta nerabeen betebeharrei buruzko kapitulua kentzea proposatu du, logika juridikorik ez duelako. Aitzitik, beharrezkotzat jo du haurrekin eta nerabeekin zerikusia



# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

duten erreferentzia zehatzak eta beste lege batzuekiko loturak txertatzea, baita nerabezaroaren berezitasunak kontuan hartzen dituen berariazko artikuluren bat sartzeari ere.

Araua lantzeari dagokionez, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak beharrezkotzat jo du haurren eta nerabeen benetako parte-hartzea sustatzea. Horretarako, hausnarketarako, prestakuntzarako eta eztabaidarako esparru espezifikoak barneratzea gomendatu du, baita laguntzeko beharrezkoak diren baliabideak ere. Gainera, babes-sisteman dauden edo egon diren haurren parte-hartzea kontuan hartzea iradoki du.

Era berean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak komenigarritzat eta gomendagarritzat jo du haurren eta nerabeen artean haien eginkizunak, betebeharrak eta erantzukizunak ezagutzea eta bete ditzaten sustatzea, bai familia-, komunitate- eta hezkuntza-esparruetatik, bai eta instantzia guztien erantzukizunak indartzea ere, haiei laguntzean, haur-nerabeen autonomia osoa lortu arte.

Haurrekin eta nerabeekin jarduten duten eragileak aipatuta, EGABek eragileen arteko koordinazioa bermatzea gomendatu du, hura hobeto ulertu eta aplikatzeko, eta dokumentuan jasotako tresnen izenen bikoiztasuna berrikustea iradoki du, baita antzeko funtzioak dituzten organoen ugaritasuna ere. Edukian sartutako eragileei dagokionez, beharrezkotzat jo du Arartekoaren Haur eta Nerabeen Bulegoari indar handiagoa ematea legean bertan.

Administrazio publikoari dagokionez, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egokitzat jo du beharrezko baliabideak aurreikustea edozein motatako desgaitasun-kasu zehatzei laguntzeko, desgaitasunen bat duten adingabeek administrazio publikoarekiko harremanak aukera-berdintasunean izan ditzaten. Era berean, prebentzioaren ikuspegitik, beharrezkotzat jo du administrazioen babes-ekintzaren esparruan, babes-politikak eta espazio seguruak diseinatzea, haur eta nerabeen aurkako indarkeria-mota guztiak antzeman, horien berri eman eta horiei erantzuna emango zaiela bermatzeko. Gainera, haurren pobrezia aurre egiteko eta hazteko prestazioen unibertsaltasuna aitortzeko eta legean sartzeko eskatu du, eta uste du buruko osasunaren arlora bideratutako baliabideen eskuragarritasuna eta gehikuntza sustatu beharko lituzkeela, horri lotutako arazoak gizarte-bazterkeria bihur ez daitezela.

Erabilitako hizkuntzari dagokionez, kontsulta-organoak hizkuntza inklusiboa erabiltzea gomendatu du, baita aniztasunari arreta jartzea ere, haurren eta nerabeen askotariko gaitasun, erritmo eta ikasteko molde, motibazio, interes, egoera sozioekonomiko eta kultural, linguistiko eta osasun-gertaerei erantzuteko.

Era berean, EGABek ohartarazi du, hezkuntzarako eskubidea arautzen denean, gaitasun handiak dituzten adingabeak, hezkuntza-esparruan ere egokitzapen eta doikuntza espezifikoak behar dituztenak, ez direla aipatu, desgaitasuna duten eta gizarteratzeko zailtasunak dituzten adingabeen premiak kontuan hartzen diren neurrian.

Azken gai horri lotuta, irizpenak ohartarazi du lege-aurreproiektuak ez duela aurreikusten familia-erreferenterik gabeko haur migratzaileen premiei erantzuteko neurri espezifikorik, eta, horrez gain, ez dituela aintzat hartu landa-eremuan egun dauden oztopoak zerbitzuak eskuratzeko. Gainera, kezkaturik ageri da haur eta nerabe transexualen eskubide eta askatasunei buruzkoa nola jaso den, ez baita zehazten askatasun hori nola egituratzen eta bermatzen den.

Azkenik, familia-aniztasuna eta kultura-aniztasuna aipatzeko erabili diren terminoak berrikustera gogatu du, familia-mota desberdinak islatzen dituzten terminoak erabiliz, hala nola 'aitak' edo 'amak' eta kultura-aniztasunaren aipamena egiteko berba egokiagoak ere bai, hala nola "kultura-identitatea" edo "jatorrizko herrialdea". Horren harira, "adingabeko pertsonak" erabiltzea gomendatu du, "adingabea" edo "adingabeak" erabili beharrean, baldin eta, oinarri juridikoa duen arrazoiren bat tarteko dela, adingabetasuna azpimarratzea beharrezkoa ez bada

### **13/22 IRIZPENA, urriak 18koa, "Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen errolda sortzen duen eta horien funtzionamendua arautzen duen Dekretu-Proiektuari" buruzkoa**

**Batzordea:** Sozial Garapenerako Batzordea

**Sarrera data:** 2022ko urriaren 23a

**Emaitza:** Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, egokia da Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak prestatutako proiektua izapidetzea.

Arauren xedea da Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen errolda publikoa sortzea, bai eta horien funtzionamendua arautzea ere, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 5. Artikuluak dakarren legezko manua betez. Azken batean, helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan dauden hirugarren sektore sozialeko erakundeen kopurua eta horien osaera ezagutzea, eta tresna erabilgarri bat sortzea Euskadiko hirugarren sektore soziala ezagutarazi, zabaldu, aztertu, plangintza egin, antolatu eta sustapena egiteko.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak ontzat jo du araua lantzea, eta beharrezkotzat jo du araua abian jartzea, egun dagoen legezko betebeharra betetzeko. Hala eta guztiz ere, aplikazio-eremuari buruzko atala berrikustea iradoki du EGABek, dokumentua errazago uler dadin. Zehazki, proposatu du testua zein enplegu-zentro bereziz ari den zehaztea, eta gomendatu du "gizarteratze- eta laneratze-enpresak" terminoaren ordez, "laneratze-enpresak" erabiltzea, erakunde horiek artezten dituzten araudietan bezala izendatzeko.

### **14/22 IRIZPENA, urriaren 26n, "Gizarte Politiketako Sailaren idazkia sartu zen, eta txostena eskatzen zuen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari itun sozialaren eta hitzarmenen araubidea arautzen dituen Dekretu-proiektuari" buruzkoa**

**Batzordea:** Sozial Garapenerako Batzordea

**Sarrera data:** 2022ko irailaren 9a

**Emaitza:** Arauren xedea da Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 61.1 eta 69. artikuluetan xedatutako itun-araubidea eta hitzarmenak arautzea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari.

Dekretu horrek Gizarte Zerbitzuen Legea garatzen du, eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzorde hobek horren gaineko iritzia eman zuen 2008ko martxoaren 6ko 3/08 Irizpenean: "Gizarte-zerbitzuen kudeaketan ekimen pribatuaren partaidetzaren aukerari buruz EGAB-ren barruan dauden ikuspuntu desberdinak alde batera utzi gabe, Aurreproiektuan xede horrez egindako diseinuak zalantzak sortzen ditu, egiazko norainokoa ezin baitaiteke hauteman".

# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz, testuak areagotu egiten du iragarritako ziurgabetasun-egoera hori.

Ez da ulertzen gizarte-zerbitzuen garapen-ereduaren zirriborro orokorra zein izango den, ezta ekimen pribatuak zerbitzu publiko horien kudeaketan duen parte-hartzearen irismen edo norainokoa ere, eta horrek ziurgabetasun-egoera sorrarazten du. Era berean, adierazi du testuak administrazio publikoei, hirugarren sektore sozialari eta merkataritza-hornitzaileei gizarte-zerbitzuak hornitzeko esleitzen dizkien eginkizun edo rolek kezka eta harridura handia sortzen dutela sektoreko hainbat eragile garrantzitsuren ordezkarien artean, eta 2008an, Gizarte Zerbitzuen Legea indarrean hasi zenean araututako erregelamendu-garapena, batzordeak beharrezkotzat eta egokitzat jo duena, ez dela orain arte garatu.

Ildo horretan, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea kezkatuta dago proposamenak ez duelako bat egiten administrazioekin zerbitzu horietako gehienak emanez lankidetzan aritzen diren erakundeekin, eta Eusko Jaurlaritzari eskatu dio argitzeko eta adostasun sozial eta politikoa lortzeko ahalegina egin dezala zerikusia duten eragile nagusiekin, dekretu-proiektu berria idazteko, gizarte-zerbitzuak garatzeko eredu aski ezagunean eta guztiek onartuan zedarritzeko.

## [15/22 IRIZPENA, urriaren 26koa, “Enpleguaren Euskal Lege-aurreproiektuari” buruzkoa](#)

**Batzordea:** Sozial Garapenerako Batzordea

**Sarrera data:** 2022ko irailaren 16a

**Emaitza:** Kontseiluak egokitzat jo du Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak prestatutako aurreproiektu hau izapidetzea, eta egokitzat jo du Euskal Enplegu Sistema oso-osoan antolatzeke eta arrazionalizatzeko egindako ekarpena. Hala ere, zenbait gogoeta egin ditu, aztertutako testua hobetzeko proposamen gisa.

Araua xedea da pertsonen enplegarritasuna hobetzeko eskubideak eta betebeharrak definitzea, eta botere publikoek enplegu-politiken arloan jarduteko dituzten printzipioak zehaztea, Euskal Enplegu Sarea sortzea, eta haren zerbitzu-zorroa eta enplegarritasuna hobetzeko programa osagarriak antolatzea eta kudeatzea. Hala berean, enpleguaren arloko eskumenak, gobernantza-eredua, enplegu-politika publikoen plangintza, parte-hartzea eta finantzaketa zehazten ditu, eta Euskal Enplegu Zerbitzua (Lanbide) ere arautzen du.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen arabera, arauak administrazio publikoen, enpresen eta erabiltzailearen erantzunkidetasuna antolatzen eta sustatzen laguntzen du, eta on deritzo azken hori “helburu” izatetik politika publikoen “subjektu aktibo” izatera igarotzera. Gainera, politika publikoak diseinatzean eta gauzatzean, hitzartzeari eta elkarrizketa sozialari emandako garrantzia nabarmendu du. Ildo horretan, araua egiterakoan eragile ekonomiko eta sozialek duten parte-hartze zabala balioetsi du, eta egoki iritzi dio arauaren gobernantza egiturari.

Irizpenean jasotako gogoetei dagokienez, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak ontzat jo du Enpleguari buruzko Legeak Gizarte Elkarrizketarako Mahaia lege-mailako araudi batera igotzea, baina Mahaiaren funtzionamendua arautzen duen araua eguneratzen aurrera egitea gomendatu du, gizarte-eragileei ematen zaien zeregina argiago eta garatuago gera dadin.

Eskumen-esparruari dagokionez, EGABek ohartarazi du aurreproiektuak foru-aldundiei eta udalei eskumen-esparru zabalegia emateak zaildu egin diezaiekeela udalei tokiko enplegu-politikak garatzea. Gainera, adierazi du horiek ez direla beti bizkorrenak enplegu-politika aktiboetan, eta enplegu guztiak ez duela tokiko dimentsioa. Era berean, euskal kontsulta-organoaren ustez, enplegu-zerbitzu jakin batzuen prestazioa deszentralizatzeak eta enplegu-politika publikoen diseinuan eta kudeaketan tokiko dimentsioari parte-hartze handiagoa emateak Enplegu Zerbitzu Publikoaren berezko eskumenak eta alderdiak bazter litzake, eta haren eginkizunak itxuragabetu. Esparru horretan, enplegu- eta gizarteratze-politikak ebaluatzeko, ikertzeko eta berritzeko organo berriaren izaera eta Enpleguaren Euskal Sarea definitzea gomendatu du.

Prestakuntza enplegu-politika aktibo legez hartzeari dagokionez, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak adierazi du arauak ez duela behar adina islatzen prestakuntzak arlo horretan duen garrantzi estrategikoa, eta iradoki du langileen prestakuntza legean bertan gehitzea, bai eta “laneko prestakuntza” esamoldearen ordean “lanerako prestakuntza” erabiltzea. Era berean, beharrezkotzat jo du Euskal Enplegu Zerbitzuak prestakuntza-eskaintza egonkorra bermatzea, pertsonen eta enpresen beharrak eta epe labur, ertain eta luzeko produkzio-sarearen bilakaera -agertokiak kontuan hartuta, eta iradokitzen du langileen eta enpresen prestakuntzarako esparru erkidea arautzea.

Euskal Enplegu Zerbitzuari (Lanbide) dagokionez, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak aldekotzat jo du Eusko Jaurlaritzak malgutasun, bizitasun eta espezializazio handiagoa bilatzea arlo horretan, Euskal Enplegu Zerbitzua zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa definitzea erabaki baitu. Hala ere, EGABek uste du hizpide darabilgun legeak sendotu egin behar dituela Erakundearen hiru alderdiko eredua eta Administrazio Kontseiluaren egungo egitura eta osaera, organoaren eite juridikoa edozein dela ere. Legean, Lanbideren eginkizunak eta gobernantza-eredua zehaztu behar badira, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak uste du ahalik eta gehien egokitu beharko liratekeela haren estatutueta, gizarte-eragileekin adostu baitziren.

Era berean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak azpimarratu du oso garrantzitsua dela zerbitzua behar bezala emango dela bermatzeko behar beste baliabide jartzea, eta berriro adierazi du eskura dauden benetako baliabideak, giza baliabideak eta baliabide materialak orekatu behar direla eskumen-zamaren eredura. Batez ere, kontuan hartuta Lanbideen politika pasiboak ere kudeatu beharko lituzkeela (langabezia-prestazioak eta -sorospinak). Ildo horretan, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak beharrezkotzat jo du finantzaketa-iturriekin lotuta dagoen artikulua berrikustea legean, programak eta zerbitzuak garatzeko behar diren funtsak izango direla berma dezan.

Azkenik, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egokitzen jo du hainbat erakunde zerbitzu jakin bat ematen parte hartzeko kontratu irekien aukera berria, enplegurako laguntzak kudeatzeko ohiko arazoetako bat laguntza-deialdien kudeaketa zailarekin lotuta baitago.

# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

## 16/22 IRIZPENA azaroaren 8koa, “suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuen Lege- aurreproiektuari” buruzkoa

**Batzordea:** Sozial Garapenerako Batzordea

**Sarrera data:** 2022ko urriaren 7a

**Emaitza:** EGABek egokitzen jo du Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak prestatutako Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuen Lege Aurreproiektua izapidetzea, baina hainbat gogoeta proposatu ditu aztertutako testua hobetzeko asmoz.

Euskadiko organo aholku-emailearen ustez, egokia eta aukerakoa da zerbitzu horiei lege-mailako araudi propioa esleitzea. Araudi horren helburua da Euskadin suteak prebenitzeko eta itzaltzeko eta salbamendurako jarduera antolatzea, bai eta euskal administrazio publikoen eta bertako langileen izaera horretako zerbitzuak arautzea ere, zerbitzu horiek euskal lurraldean ematen direla bermatzeko, eta zerbitzu horiek elkarrekin eta koordinatuta jardutea ahalbidetzen duten tresnak arautzeko, bai eta beste larrialdi-zerbitzu batzuekin koordinatuta ere.

Gogoetei dagokienez, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak beharrezkotzat jo du koordinazio-eta lankidetzaren tresnen erregulazioari buruzko artikulua berrikustea. Zehazki, suteen prebentzio eta itzalketako nahiz salbamenduko zerbitzuetarako Erakunde arteko Batzordearen eginkizunak arautzen dituzten baldintzak gainbegiratzea iradoki du, bai eta enpresako suhiltzaileak edo autobabeseko ekipoak dituzten enpresekiko lankidetzaren tresnak ere. Ildo horretan, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak gomendatu du Erakunde arteko Batzordearen eginkizunen artean sartzeko herri-administrazioek zerbitzuak emateko behar dituzten bitarteko tekniko eta baliabideak nahikoak diren balioestea, eta prebentzioko, suteak itzaltzeko edo salbamenduko zerbitzuak dituzten enpresetako langileen esku-hartzea gara dadin iradoki du.

Era berean, EGABek kezka agertu du ez baitu ulertzen araudiak gastu publikoa handitzea kontuan ez hartzea egitura profesional berrira egokitzeagatik eragindako plantilen ordainsariaren baldintzetan, eta, beraz, autu horren arrazoia manuan bertan azaltzeko proposatu du.

Langileen kategoriei eta sailkapen-taldeei dagokienez, organo aholku-emaileak onartu du “suhiltzaile boluntarioaren” eta “suhiltzaile laguntzailearen” kategoriak desagertzea, eta sarjenturen kategoria sailkapenaren B taldean sailkatzeko gomendatu du, eta gainera, ratio-irizpidea ere erabiltzea iradoki du agente-taularen proportzionaltasunari eusteko. Era berean, Zerbitzuek prebentzioaren arloan bete behar duten zeregina zehaztu gabe dagoela ohartarazi du, eta Karrera Profesional Horizontalaren garapenera buruzko aipamenik ez dagoela dio. Gai horretan, indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legea erreferentziatzat hartzea iradoki du.

**17/22 IRIZPENA, abenduaren 12koa, “Ingurumeneko Aholku Kontseiluaren osaera, kideak izendatzeko prozedura, antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen dekretu-proiektuari” buruzkoa**

**Batzordea:** Ekonomia Garapenerako Batzordea

**Sarrera data:** 2022ko azaroaren 7a

**Emaitza:** Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak prestatutako “Ingurumeneko Aholku Kontseiluaren osaera, kideak izendatzeko prozedura, antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen dekretu-proiektua” delakoari buruzko txostena egin du EGABek. Batzordeak emandako erantzunean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak beharrezkotzat jo du araua berregitea, irizpenean adierazitako funtsezko alderdiak kontuan hartuta.

Dekretu-proiektuaren helburua da Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko 2021eko Legean modu orokorrean definitu zen Ingurumeneko Aholku Batzordearen osaera zehaztea, bai eta kideak izendatzeko prozedura, antolaketa eta funtzionamendua arautzea ere. Ildo horretan, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak ohartarazi du arauak ez duela betetzen Ingurumeneko Aholku Batzordearen osaera zehaztasunez eta argitasunez zedarriztatzeko helburua, ezta kideak izendatzeko irizpideak zehaztekoa ere.

Kontuan hartu beharreko funtsezko alderdi edo gaiei eta organoaren osaera zehazteari dagokienez, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz, Ingurumeneko Aholku Batzordeko kideak ordezkari handieneko enpresa - eta sindikatu-erakundeetako kide izatea ezarri behar duela arauak. Era berean, beharrezkotzat jo du, parekotasunari helduz, enpresa- eta sindikatu-ordezkarien kopurua berrikustea, eta ordezkari eskuratzeko zein banatzeko irizpideak zehaztea, zeharkako organo aholku-emaile bat eratzeke xedez, bere baitan askotariko interesak eta sektore anitzekoak ekitatez bilduko dituen.

Zehazki, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak ordezkari kopurua gorantz berrikustea iradoki du, kontuan hartuta ezarritako kopurua hiru pertsonakoa dela, bai enpresaburuen elkarteentzat, bai sindikatuentzat, eta ikusita Euskadin ordezkari zabala duten lau sindikatu badirela. Gainera, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak ingurumenean espezializatutako erakundeen partaidetza izatea gomendatu du, Ingurumen Kontseiluaren lanak aberasteko helburuz.

Bestalde, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak beharrezkotzat jo du dekretu-proiektuaren justifikazio-memorian Ingurumeneko organo aholku-emailearen osaeraren arrazoiketa ere sartzea, ordezkari-motak eta ordezkarietako erakunde zehatzak, horietako bakoitzaren kide-kopurua eta kide horiek izendatzeko irizpideak eta lehendakaria izendatzeko irizpideak ere bai, arauaren izapidetzearekin batera doan txosten juridikoak jasotzen duen bezala.

Ingurumen Kontseiluaren funtzionamenduari gagozkiola, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz, arauak organoaren funtzionamendu egokia bermatzen duen gutxieneko edukia jaso beharko luke, baita batzordeak edo lantaldeak eratzeari buruzkoa zehaztu ere. Horiei dagokienez, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak urteko nahitaezko/gutxieneko bileren kopurua handitzea iradoki du (gaur egun, hiru dira), datozen urteetan ingurumenari lotuta agertuko diren gai interesgarri ugariak aintzat hartuta.

# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

URTEETAKO AHOLKU JARDUERAREN ERAGINAREN JARRAIPENA

EUSKO  
JAURLARITZAREN  
GOBERNU  
KONTSEILUAK  
ONARTUTAKO  
LEGE-  
PROIEKTUAK,  
DEKRETUAK ETA  
PLANAK

2022

## **2/21 IRIZPENAREN JARRAIPENA, maiatzaren 12koa, "Euskadiko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak arautzen dituen Dekretu Proiektuari" buruzkoa**

2022ko ekainaren 28an, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak proposatuta, EAEko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak arautzen dituen dekretua onartu zuen Jaurlaritzaren Kontseiluak. Dekretu horri buruzko txostena egin zuen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2021eko maiatzaren 12ko Osoko bilkuran. Araua, berriz, 2022ko irailaren 1eko EHAAr argitaratu zen.

Dekretuaren xedea da EAEn kokatutako etxebizitzek eta zuzkidura-bizitokiak bete behar dituzten gutxieneko bizigarritasun-baldintzak ezartzea, bai eta horiek hartzen dituzten eta nagusiki bizitegitarako erabiltzen diren eraikinek bete behar dituztenak ere; duinak, egokiak eta irisgarriak izango direla bermatzeko.

Era berean, manu horren xedea da zuzkidura-bizitokiak eta babes publikoko etxebizitzek errespetatu behar dituzten diseinu-arauak zehaztea. Azken horien kasuan, babes publikoko kalifikazioaren ondorioetarako bakarrik.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egoki eta aukerakotzat jo zuen araua bere irizpenean, eta hainbat gogoeta egin zituen. Hala eta guztiz ere, onartutako testuak hainbat aldaketa izan ditu egituraren eta artikuluetan, eta horrek zaildu egiten du EGABek irizpena eman zion dokumentuaren eta azken testuaren arteko alderaketarik egitea. Izan ere, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egindako gogoeta gehienak bertan behera geratu dira, dena delako gaia desagertu egin baita, sailak jatorrizko testuan egindako aldaketaren ondorioz, hau da, EGABek hasiera batean iruzkindutako testuan.

## **4/21 IRIZPENAREN JARRAIPENA, uztailaren 30koa, "kable bidezko garraioaren Lege Aurreproiektuari" buruzkoa**

2022ko otsailaren 8an, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak proposatuta, kable bidezko garraioaren lege-proiektua onartu zuen Jaurlaritzaren Kontseiluak. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2021eko uztailaren 30eko Osoko bilkuran egin zuen lege-proiektu horren gaineko txostena. Araua 2022ko abenduaren 28ko EHAAr argitaratu zen. Araua 2022ko abenduaren 28ko EHAAr argitaratu zen.

Arauaren xedea da pertsonak kable bidez garraiatzeko instalazioen proiektzioa, eraikuntza, zerbitzuan jartzea eta ustiapena arautzea, instalazio horiek oso-osorik Euskal Autonomia Erkidegotik barrena igarotzen direnean.

Irizpenean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak zenbait alderdi aipatu zituen, alderdi horiek txertaturik, arauak hobera egin zezakeela uste baitzuen batzordeak. Azkenik, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen proposamen bat ere ez zen jaso testuan.

**7/21 IRIZPENA JARRAIPENA, irailaren 16koa, “Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Legearen Aurreproiektuari” buruzkoa**

2022ko martxoaren 29an, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak proposatuta, Euskadiko Mugikortasun Iraunkorraren Lege-proiektua onartu zuen Jaurlaritzaren Kontseiluak. Aldez aurretik, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak txostena egin zuen 2021eko irailaren 16ko Osoko bilkuran.

Arauren helburua pertsonen eta salgaien garraioak bete behar dituen printzipioak eta helburuak ezartzea da, gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik mugikortasun iraunkor eta seguru baten garapen integrala lortzeko.

Era berean, EAEn mugikortasun iraunkorra lortzeko beharrezkoak diren tresnak eta prozedurak antolatzea proposatzen da legean, mugikortasunari lotutako gaitan eskumena duten administrazioen artean koordinatuta.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, irizpenean esan bezala, araua egokia eta aukerakoa zen, eta zenbait alderdi aipatu zituen, araua hobetze aldera. Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egindako proposamenak oso hein txikian txertatu ziren testuan.

Kontuan hartutakoen artean, aipatzekoa da Itun Berdearen begirada berria sartu dela, mugikortasunaren ekologiziora bideratua, garraioaren sektorea hazteko baldintzatzaile gisa ezartzen dena, eta horren digitalizaziorantz, sistema osoaren modernizazio, arintasun eta eragingarritasunerako ezinbesteko eragile gisa.

**8/21 IRIZPENA JARRAIPENA, irailaren 16koa, sobre el “Kiroleko dopinaren aurkako legearen bigarren aldaketaren lege aurreproiektuari” buruzkoa**

2021eko abenduaren 28an, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak proposatuta, Kiroleko Dopinaren aurkako Legea bigarren aldiz aldatzeko lege-proiektua onartu zuen Jaurlaritzaren Kontseiluak. EGABek proiektu horri buruzko irzpena eman zuen 2021eko irailaren 16ko Osoko bilkuran.

Lege Horren helburua da Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea 2021eko urtarrilaren 1ean indarrean hasi den Dopinaren aurkako Munduko Kode berrira egokitzea, 2019an, Dopinaren aurkako V. Mundu Konferentzian, Katowice herrian hartutako erabakietatik abiatuta.

Irizpenean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak gogoeta orokor batzuk egin zituen, eta horietan, nabarmendu zuen Dopinaren aurkako Munduko Kode berriak dopinaren arloan legez kontratatzat jotzen diren jokabideen katalogoko arau-hausteak eguneratu dituela, bai eta dopin-agenteen zerrenda ere. Biak ala biak oso beharrezkoak dira, erregulazioaren xede den gaian gertatzen diren aldaketak oso azkar jazotzen direlako. Horregatik, lege-aurreproiektuaren egokitasuna aipatzeaz gain, horren aldeko balorazioa egin zen.

Era berean, Batzordeak aldekotzat jo du kirolariei eska dakizkiekeen betebeharrak edo erantzukizun jakin batzuei dagokienez, kirolariak mailakatea beren kirol-mailaren arabera (nazioartekoa izan ala ez) eta izaeraren arabera (federatua izan ala ez); uste baita horrek zehapen-araubidea modu bidezkoagoan aplikatzea ekarriko duela. Berriazko gogoetarik ez dagoenez, ez dugu egokitzen jo horren eragina ebaluatzea.



# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

EUSKO  
JAURLARITZAREN  
GOBERNU  
KONTSEILUAK  
ONARTUTAKO  
LEGE-  
PROIEKTUAK,  
DEKRETUAK ETA  
PLANAK

2022

## 9/21 IRIZPENAREN JARRAIPENA, urriaren 1ekoa, "Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko Legearen Aurreproiektuari" buruzkoa

2022ko martxoaren 15ean, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren proposamenez, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren Lege-proiektua onartu zuen Jaurlaritzaren Kontseiluak. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2021eko urriaren 1eko Osoko bilkuran egin zuen proiektuari buruzko txostena.

Aurreproiektuaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak babestea, defendatzea eta sustatzea, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko abenduaren 22ko 6/2003 Legean jasotako egungo erregulazioa ordeztuz, azkena indargabetuta geratuko bailitzateke. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzko uztailaren 1eko 123/2008 Dekretua ere indargabetuko da.

Irizpenean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak ekimenaren alde egin zuen eta gogoeta orokor eta zehatz ugari egin zituen haren edukia berrikusteko. Irizpenean emandako ia 40 proposamenetatik, % 30 baino gehiago hartu ziren kontuan.

Horien artean, kontsumo-harremana justifikatzen duen dokumentua aipatu behar da. Xedapen horrek agerian utzi du kontsumitzaileek eta erabiltzaileek faktura jasotzeko eskubidea dutela, faktura egiteko betebeharrari hertsiki lotuta, eta, bidenabar, fakturan jaso beharreko elementuetako batzuk ezarri ditu. Ordenamendu juridikoak eskatzen dituen elementuak betetzen direla azpimarratzeaz gain, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak azken prezio osoa zehaztea iradoki zuen, aplikatutako zerga-kuota eta zerga-tasa banakatuta.

Nabarmentzekoa da, halaber, generoaren arabera prezioen diskriminaziorik ezari buruzko iradokizuna. Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz, xedapena anbigua zen, eta onartutako testuan aldatu egin zen, arauaren benetako esanahia argituz ("32. artikulua. Ezin izango zaie prezio desberdinak esleitu kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskura jarritako produktu edo zerbitzu berdinei, hartzailearen generoaren arabera").

Era berean, enpresetan bezeroei arreta emateko zerbitzuei buruzkoa ere aipatu behar da, bereziki, bezeroen arretarako zerbitzuetako langileen irismenarekin zerikusia duen zatia, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen defentsaren arloan prestakuntza egiaztatua izan behar baitute. Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz, betebeharroribezeroarentzako arreta-zerbitzuaren lehen lerroan dauden langileei dagokienez justifikatzen da. Organo aholku-emaileak uste du hala egin behar dela argi gera dadin, eta langile guztiek prestakuntza hori izateko beharrari buruzko interpretazioak saihesteko. Azkenik, sektore publikoko enpresek, empresa eta korporazio-erakundeek eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteek kontsumo-ikuskaritzak beren eginkizunak betetzean eskatzen dien informazioa emateko duten betebeharrari dagokionez, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak gomendatu zuen badaezpadako kontu bat eranstea legeriak gai horretan ezartzen duen datu pertsonalak babesteko eskubideari dagokionez. Alderdi hori ere jaso da azkenean onartu den agirian

**11/21 IRIZPENAREN JARRAIPENA, azaroaren 11koa, "Euskadiko Inklusiorako eta diru sarrerak bermatzeko Euskal Sistemaren Legearen Aurreproiektuari" buruzkoa**

2022ko maiatzaren 10ean, Lan eta Enplegu Sailak proposatuta, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Lege Proiektua onartu zuen Jaurlaritzaren Kontseiluak. EGABek proiektuari buruzko irizpena eman zuen 2021eko azaroaren 11ko Osoko bilkuran.

Arau honen xedea da Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema arautzea. Sistema horren helburua da pertsonen bazterkeria-arriskua prebenitzea, bazterkeria pertsonala, soziala eta lanekoa arintzea, bizitza duinaren garapena bermatzea eta behar adina baliabide pertsonal, laboral, sozial edo ekonomikorik ez dutenak gizartean erabat txerta daitezzen sustatzea.

Horretarako, lege berriaren helburu nagusia da Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema osoaren funtzionamendua egokitzea, eta, bereziki, sistema osatzen duten prestazio ekonomikoena; Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea eta hortik eratortzen diren xedapenak eguneratuta.

Irizpenean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak ontzat jo zuen ekimena, eta gogoeta orokor ugari egin zituen. Horietan, bereziki balioetsi da Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren egungo arau-esparrua modernizatzea. 10 urte baino gehiago indarrean eman ondoren, eta pandemia baten erdian, beharrezkoa da arau-esparrua eta sistema bera sakonki eguneratzea, prestazio horien onuradunen errealitate berriei eraginkortasunez, eragingarritasunez eta kalitatez ekin ahal izateko. Gainera, sistema osoaren gobernantza hobetu nahi da, gizarte-, enplegu-, etxebizitza-, hezkuntza- eta osasun-zerbitzuen ezinbesteko elkarreraginaren aurrean. Ekimena nahitaezkoa da hona biltzen diren laguntzen sarearen (DSBE, GLL, GGL) eta laneratzeko nahiz gizarteratzeko prozesuen garrantzia eta konplexutasuna direla eta.

Zehazki, balioa eman zaie laneratzeko eta gizarteratzeko zerbitzuen erregulazio berriari, prestazioen kudeaketa eraginkorragoari, erabiltzaileen eskubidea aitortzeari eta zehatzeko ahala garatzeari. Mahairatutako proposamen zehatzetatik, gutxi gorabehera erdiak hartu dira kontuan. Besteak beste, zioen azalpenean, Europako erreferentziak sartzeari, eta adinari eta erroldatzeari buruzko baldintza batzuk berrikustea, bai eta laguntzak izapidetzeko epe batzuk ere.

# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

EUSKO  
JAURLARITZAREN  
GOBERNU  
KONTSEILUAK  
ONARTUTAKO  
LEGE-  
PROIEKTUAK,  
DEKRETUAK ETA  
PLANAK

2022

## **12/21 IRIZPENAREN JARRAIPENA, abenduaren 9koa, "Euskadiko Osasun Publikoaren Legearen aurreproiektuari" buruzkoa**

2022ko uztailaren 26an, Osasun Sailak proposatuta, Euskadiko Osasun Publikoaren Lege-proiektua onartu zuen Jaurlaritzaren Kontseiluak. Aurreproiektuari buruzko irizpena eman zuen EGABek 2021eko abenduaren 9ko Osoko bilkuran.

Hauexek dira arau honen helburuak:

- Euskal biztanleriaren ahalik eta osasun-egoerarik handiena zaintzea eta sustatzea, interes handiko ondasun publiko gisa, pertsonen eskubideak bermatuz osasunaren, aukera-berdintasunaren eta ekitatearen arloan.
- Politika eta ekintza publiko guztietan, osasunaren ikuspegia txertatzea, garapen iraunkorreko helburuetan eta Euskadirako garapenean oinarrituta.
- Osasun publikoaren arloko eskumenak, prestazioak eta zerbitzuak definitzea eta antolatzea; osasun-agintaritzaren eskuduntzak eta jarduerak zehaztea; eta osasun publikoko eginkizunak dituzten administrazio publikoen eta inplikaturako beste gizarte-sektore batzuen arteko koordinaziorako eta lankidetzarako oinarriak ezartzea.
- Euskadiko Osasun Publikoaren Sistema sortzea, erantzukizun publikoko sare egituratu gisa eratua; hala, horren helburua, 'Politika Guztietako Osasunaren' paradigmaren oinarrituta, jarduera, prestazio eta zerbitzu integralen multzoa eskaintzea da, biztanleriak ahalik eta osasun-egoera handiena lortu eta horri eustea helburu duena.

Irizpenean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak oso egokitzat eta beharrezkotzat jo zuen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren ekimena, hau da, euskal osasun publikoa kontzeptuaren hedadura osoan jorratzeko lege-testu bat egitea, osasun publikoa, neurri handi batean, osasun-esparrutik kanpoko faktoreek zehazten dutela ulertzeko ertz guztiak jorratuz, eta Eusko Jaurlaritzako politika-arloek eta sektoreek horretan esku hartu behar dutela ulertuz.

Bat gatoz lege-testu berria beharrezkoa dela; izan ere, osasun-antolamendua osasun-eskubidearen babesaren funtsezko alderdia da, eta, beraz, horri gehiago heldu behar zaio, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eskaintzen duen egungo erregulazioa gainditzen duena, eta jarduera-eremu zabalagoa egituratzea eskatzen du, Euskal Autonomia Erkidegoan, osasunari, bitarteko eta baliabideei eta inplikaturako eragile ugarietara lotutako gaitan eskumenak dituzten erakunde-mailak biltzen dituen.

Hala, onuragarritzat jo da Euskadiko Osasun Publikoaren Sistema eratzten duen aurreproiektua, sare artikulatu gisa antolatua, 'Osasuna Politika Guztietan' ikuspegiaren oinarritua, izaera integraleko zerbitzuak emateko, herritarrek ahalik eta osasun-maila handiena lor eta goza dezaten.

Artikuluak hobetzeko planteatzen diren ia 50 proposamen zehatzetatik laurden bat hartu dira kontuan. Horien artean, nabarmentzekoak dira gizarte-eragileak, osasuna politika guztietan arautzen baitute ( 18), osasunaren emaitzen eta eraginaren balioespenean herritarren parte-hartzea indartzeari buruzko aipamena (21. art.) eta idazketa hobekuntza batzuk, besteak beste osasun publikoko komunikazioari dagokionez. 86).

**13/21 IRIZPENAREN JARRAIPENA, abenduaren 9koa, “Adikzioen eta Droga-mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea ez betetzeagatiko zehapenak ordeztzeko sistema arautzen duen Dekretu Proiektuari” buruzkoa**

2022ko uztailaren 12an, Osasune sailburuaren proposamenez, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea ez betetzeagatiko zehapenak ordeztzeko dekretua onartu zuen Jaurlaritzaren Kontseiluak. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak proiektuari buruzko txostena egin zuen 2021eko abenduaren 9ko Osoko bilkuran. Araua 2022ko uztailaren 28ko EHAAn argitaratu zen.

Dekretuaren xedea da Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legearen 93. artikuluan araututako zehapenak ordeztzeko araubidea erregulatzea, eta, horretarako, ordeztzeko neurriak eta horiek aplikatzeko prozedura ezartzea.

Irizpenean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak aldekatzat jo zuen ekimena, eta kontuan hartu ez den proiektuaren edukiari buruzko gogoeta egin zuen.

Zehazki, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari deigarria iruditu zitzaion artikulua eta zioen azalpena irakurrita argi eta garbi ikusten dela arau-hauslearen borondatezko baimena funtsezkoa dela dekretuan jasotzen diren ordeztzeko neurriak aplikatzeko. Tutoretzarik ezarri ez zaien adinez nagusiei, mendekotasun-egoera pertsonala dela-eta, moduan ez daudenei, ez zaie aukerarik ematen baimen informatua aitortzeko.

Sailaren erantzuna izan zen proposamen hori sartzeari egokitzat jotzen ez dela; izan ere, apirilaren 7ko 1/2016 Legea hausten duten pertsonen profila ez dator bat adindun drogazale baten profilarekin, gaitasuna mendekotasunagatik murriztuta baitu.

**2/22 IRIZPENAREN JARRAIPENA, urtarrilaren 25ekoa, “Bidaia-agentziei buruzko Dekretua bigarren aldiz aldatzen duen Dekretu Proiektuari” buruzkoa**

2022ko uztailaren 26an, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak proposatuta, bidaia-agentziei buruzko Dekretua bigarren aldiz aldatzeko Dekretua onartu zuen Jaurlaritzaren Kontseiluak. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak dekretu horri buruzko txostena egin zuen 2022ko urtarrilaren 25eko Osoko bilkuran. Araua 2022ko irailaren 7an argitaratu zen EHAAn.

Arauren helburua da bidaia-agentzien arloko EAEko legeria egokitzea Erkidegoko araudiak kaudimengabeziaren aurrean bermeen esparruan eragindako aldaketetara. Zehazki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko azaroaren 25eko 2015/2302 (EB) Zuzentarauak, bidaia konbinatuei eta lotutako bidaia-zerbitzuei buruzkoak, eta barne-ordenamenduan sartzen duen Estatuaren oinarritzko legeriak eragin dituzte aldaketok, eta araua osatu dute EAERI eskumenez dagozkion alderdiez denaz bezainbatean.

Irizpenean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak aldaketaren beharra eta egokitasuna balioetsi zituen, baina ez zuen horri buruzko berriazko oharrik egin.

# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

EUSKO  
JAURLARITZAREN  
GOBERNU  
KONTSEILUAK  
ONARTUTAKO  
LEGE-  
PROIEKTUAK,  
DEKRETUAK ETA  
PLANAK

2022

## **3/22 IRIZPENAREN JARRAIPENA, otsailaren 15ekoa, “Enplegu Plan Estrategikoa 2021-2024ri” buruzkoa**

2022ko apirilaren 12an, Lan eta Enplegu Sailak proposatuta, 2021-2024 Enplegu Plan Estrategikoa onartu zuen Jaurlaritzaren Kontseiluak. Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak horri buruzko irizpena eman zuen 2022ko otsailaren 15eko Osoko bilkuran.

Planaren helburua da 2030eko Enpleguaren Euskal Estrategiaren helburuak ekintza bihurtzea, eta, horretarako, lagungarri gertatzea du pandemiaren ostean bultzada sozioekonomikoa ematen, hiru trantsizioak ezartzen (digitala, berdea eta demografikoa), eta kalitatezko enplegu inklusiboa sustatzen, gizarte-kontratu berria xede. Erronka nagusia enplegu gehiago sortzea izateaz gain, enplegu hori kalitatezkoa eta pertsona guztiak gizarteratzea eta laneratzea ahalbidetzen duten baldintzetan izan dadila ulertu behar da. Helburua da gizarte-eragileen artean beharrezko orekak lortzea, helburu hori ekonomia lehiakor eta globalizatu batean egingarri izan dadin.

Irizpenean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak aldekatat jo zuen ekimena, eta gogoeta orokor eta zehatz ugari egin zituen haren edukia berrikusteko. Egoki balioetsi da erronka nagusia enplegu gehiago sortzea izateaz gain, enplegu hori kalitatezkoa izatea eta pertsona guztiak ekonomia lehiakor eta globalizatuan gizarteratzea eta laneratzea ahalbidetzen duten baldintzetan izatea, manuan xedatzen den bezala. Hala ere, administrazio publikoei planean ematen zaien aurretiazko diagnostikoa eta zeregin eskasa kritikatu dira, zuzeneko nahiz zeharkako enplegua sortzeari dagokionez.

50etik gora proposamen zehatzetatik, % 20 inguru hartu dira kontuan, eta horien artean nabarmentzekoak dira Enplegua eta Prestakuntza arloari buruzko adierazleen hobekuntza hiru trantsizioetan eta idazketa hobekuntza batzuk.

## **5/22 IRIZPENAREN JARRAIPENA, martxoaren 21ekoa, “14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzen Dekretu Proiektuari” buruzkoa**

2022ko irailaren 7an, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzei buruzko dekretua onartu zuen Jaurlaritzaren Kontseiluak. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak proiektu horri buruzko txostena egin zuen 2022ko martxoaren 21eko Osoko bilkuran. Araua, berriz, 2022ko irailaren 19an argitaratu zen EHAAn.

Dekretuaren xedea da, Eusko Jaurlaritzak, familia eta lan bizitza uztartzeko politikaren barruan, familia politikaren arloan eskumena duen sailaren bidez, 14 urte bete arte seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeagatik sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaintzeko ematen dituen laguntzak erregulatzea.

Irizpenean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen aburuz, dekretu-proiektuak, klausuletan, Familien eta Haurren aldeko Euskal Itunera egokitzeko asmoaren adibidea jasotzen badu ere, familia-politikaren egungo ikuspegiak ikuspegi integralago baterantz egin behar du, eta familia eta lana uztartzeko neurri eta baliabide berriak aztertu behar ditu, seme-alabek 14 urte izan arte. Gogoeta horiek ez dira kontuan hartu.

**10/22 IRIZPENAREN JARRAIPENA, uztailaren 12koa, “Euskal Autonomia Erkidegoan Jasangarritasunerako Hezkuntza sustatzeko dekretu-proiektuari” buruzkoa**

2022ko azaroaren 2an, Gobernu Kontseiluak, Garapen Ekonomiko, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak proposatuta, Euskal Autonomia Erkidegoan iraunkortasunerako hezkuntza sustatzeko dekretua onetsi zuen. Dekretu horren proiektua Kontseiluak alde aurretik diktaminatu zuen 2022ko uztailaren 12ko osoko bilkuran.

Arau horren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan jasangarritasunerako hezkuntza bultzatzea, indartzea eta sendotzea, gure bizimoduak jasangarritasunaren kultura berriranzko trantsizioa lor dezagun ahalbidetzeko.

Irizpenean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak ontzat jo zuen ekimena, eta gogoeta orokor eta zehatz batzuk egin zituen haren edukia berrikusteko. Mahairatu ziren 12 proposamen zehatzetatik, 5 kontuan hartu dira.

Nabarmentzekoa da jasangarritasunerako hezkuntzaren funtsezko helburu bat dela, hain zuzen ere, pertsonak, banaka zein taldean, ingurumenaren izaera konplexua uler dezaten (hainbat alderdiren –fisikoak, biologikoak, sozialak, kulturalak, ekonomikoak, etab.– elkarrekintzaren ondorioz) eta ezagutza, balio eta trebetasun praktikoak eskuratzea, ingurumen-arazoak prebenitzen eta konpontzen eta ingurumenaren kalitatea kudeatzen modu arduratsuan eta eraginkorrean parte hartzeko.

Beraz, jasangarritasunerako hezkuntzak, hezkuntza-prozesuaren alderdi jakin batera mugatu beharrean, gizarte-bizitzara irekitako hezkuntza-jarduna izan behar du, gizarteko kideek, nork bere aukeren arabera, gizateriaren eta ingurunearen arteko harremanak hobetzeko zeregin konplexu eta solidarioan parte har dezaten. Horregatik, egokitzen jo dugu, EAEn, jasangarritasunerako hezkuntza bultzatzeko dekretu hau egitea.

Onartutako proposamen zehatzen artean, Ingurumenaren eta Ingurumen Hezkuntzaren munduko egunen arteko nahasketa zuzendu da, eta “bizialdi osoko ikaskuntzari” buruzko terminologia eguneratu da. Era berean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen proposamena onartu da, hau da, beharrezkoa den “bidezko trantsizio ekologikoa” aipatzea.

# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

## EAEKO EGOERA EKONOMIKO ETA SOZIALARI BURUZKO MEMORIA 2021



EAEko 2021eko ekainaren 28an egindako bilkuranko egoera ekonomiko eta sozialari buruzko memoria aho batez onartu zuen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko bilkurak, 2021eko ekainaren 28an egindako batzarrean, Kontseiluaren Erregelamenduak ezarritako epeen barruan.

Hainbat ataletan banatuta, “2021eko Memoria Sozioekonomikoak”, besteak beste, egoera ekonomikoa, enplegua eta lan-harremanak, bizi-kalitatea, hezkuntza edo gizarte-babesa aztertu eta horien inguruan hausnartzen du. Iturri ofizialetatik datozen EAEko egoera sozial eta ekonomikoari buruzko txosten eta datu estatistikoen bilduma da; eta EGABek aztertu, kontrastatu eta baloratu egiten du, dokumentuan jasotzen dituen zenbait gogoeta adostu arte.

- ⇒ Mundu izurritea edo pandemia dela-eta jaso diren datu gordinak agerrarazi dira, hala nola, heriotza-kopuru izugarria, bai eta gogoetetan nola eragin duten ere.
- ⇒ EAEk erronka demografiko handiari aurre egin behar dio oraindik ere, biztanleriaren jaiotza-tasa apala eta zahartze progresiboa dela eta. Horrek arreta berezia eskatzen du agenda politikoan.
- ⇒ Gainera, migrazio-saldo positiboek, 2021ean, hazkunde natural negatiboa konpentsatu zuten arren, ezinbestekoa da eredu demografiko eta migrazio-eredu orokorra lantzea, politika publikoak modu zeharkakoan eta koordinatuan bideratzea ahalbidetzen duena, eta adierazten du 2030 Estrategia aukera handia dela Joera-aldaketa bultzatzeko.

### DEMOGRAFIA

- ⇒ COVID-19 gaitzari aurre egiteko euste-neurriak pixkanaka-pixkanaka kentzeak jarduera ekonomikoaren dinamismo handiagoa bultzatu du, eta horren onuradun izan dira jarduera-sektore guztiak, bereziki industria-sektorea, bai eta eskariaren osagaiak ere, nahiz eta oraindik ez den iritsi pandemiaren aurreko jarduera-mailara.
- ⇒ 2021eko ekitaldiak enpresen susperraldi garrantzitsua ekarri du, 2020ko martxotik apirilera.
- ⇒ Kontseilua kezkatuta dago egungo egoera inflazionistagatik, ondorio kaltegarriak baititu ekoizpen-jardueraren errentagarritasunean eta herritarren eroste-ahalmenean. Halaber, egoera gainditzeko eta epe ertain eta luzera joera inflazionista sor dadin saihesteko akordioak lortzeko eta neurriak hartzeko beharra aipatu du.

### EKONOMIA





EMPLEGU  
ETA LAN  
HARREMANAK

- ⇒ 2021. urtean gertatu den enpleguaren hazkunderari esker, la-ia berreskuratu da pandemiaren aurreko egoera. Hala eta guztiz ere, EGABek ohartarazi du behin-behinekotasun handia eta lanaldi partzialeko lan ugari daudela enpleguan; ildo horretran, itxaron beharko da 2021. Urtearen amaieran onetsitako Lan Erreformatik zer nolako ondorioak izango dituen.
- ⇒ Jarduera-tasa txikiek badiraute bi sexuetan eta adin-talde guztietan, Inguruko herrialdeekin alderatuta, eta egoera hori bereziki kezagarria da emakumeen eta adinako pertsonen kasuan, baita kualifikazio txikiagoko pertsonen kasuan ere.
- ⇒ Langabezia-tasa handiena pairatzen duten gizataldeei ez diete unean uneko arazoek eragin behar, eta beharrezkoa da halakoak laneratzea, modu egonkor eta kalitatezkoan.
- ⇒ Enplegu Politika Aktiboek (EPA) garrantziari eutsi diote aurrean ere, eta argiro erakutsi dute prestakuntza-eskaintza Europako funtsen xede-eremuetara egokitu beharra dagoela

- ⇒ **Osasun-sistema:** COVID-19ak osasun publikoa agenda politikoaren gailurrean jarri du berriro ere, osasun arreta ona bermatzen duten egitura nahikoak izateko beharra agerian geratu delarik, baita prebentzio-mekanismoak ezartzea garrantzitsua dela, bai eta malgutasuna eta erresilientzia ahalbidetuz duten behar adina langile eta koordinazio tresna izatea ere, osasun-ezbeharren aurrean. Etorkizunari begira, osasun-ikerketari eta sistemaren digitalizazioari esker, osasunaren prebentzioan eta hobekuntzan aurrera egin ahal izango da. Hori dela eta, zenbait kolektiboren eten digitalari arreta berezia eskaintzeko eskatu du Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak.

- ⇒ **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza:** Euskadik 2019an galdutako goi-berrikuntzako eskualdearen kategoria berreskuratu izana goiraipatu behar da, baita RIS 2021ean (Regional innovation scoreboard) eskualdeko bikaintasun-polotzat hartu izana ere. Hala eta guztiz ere, badira hainbat faktore euskal enpresetan berrikuntzaren aldeko apustua oztopatzen dutenak, batez ere, ETEetan, hala nola beste lehentasun batzuk egotea eta eskariari buruzko ziurgabetasuna. Horri gehitu behar zaizkio eragin ekonomikoak eta I+Gn egindako inbertsioa emaitzetara eramatea zailtzen dutenak. Horregatik, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea bat dator 2030erako ZTBPren helburu operatiboetako batekin, hau da, EAeko I+G+bk emaitzetara duen orientazioa maximizatzea.

- ⇒ **Ingurune Naturala eta Energia:** EUSTATen Ingurumen Adierazlearen aurrerapena eskasa izan da, eta, beraz, beharrezkoa da garraio bide eta mugikortasun jasangarriagoetarantz jotzea, etxeetako kontsumo-jarraibideak kontsumo iraunkorrerantz aldatzea, energia berriztagarrien ekoizpena handitzea eta ekonomia zirkularra bultzatzea. Horretarako, kontzientziazio-lana egitea eta bizi-ohiturak aldatzea gomendatzen da, berotegi-efektuko gasen eta hondakinen murrizketa ere erraztuko baitute.



OSASUN  
BIZI-BALDINTZAK  
ETA  
GIZARTE BABESAK



# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

## BIZI KALITATEA

- ⇒ **Bizi-baldintzak:** EAEko biztanleen bizi-mailak ez du beherakada nabarmenik izan azken urtean (2020ko datuak), eta pobrezia- eta bazterketa-arriskuaren inguruko adierazle nagusiek aldeko bilakaera izan dute, pandemia gorabehera, besteak beste, EAE abiapuntu onean zegoelako pandemia hasi zen unean arriskuaren inguruko adierazle nagusiek aldeko bilakaera izan dute, pandemia gorabehera, besteak beste, EAE abiapuntu onean zegoelako pandemia hasi zen unean.

Hala ere, pobrezia energetikoaren eta behar bezala elikatzeke ezintasunaren adierazle bilakaera negatiboari buruz ohartarazi da pobrezia-egoeren % 40 baino gehiago EBtik kanpoko atzerritar jatorriko biztanleei eragiten diela, eta % 15 gehiago lan egonkorrik gabeko emakumeak buru dituzten guraso bakarreko familiei dagokiela. Pandemiaren ondorioz, bizitoki-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak egon daitezke, gizarte-babeseke sistemaren estaldurarik gabe.

- ⇒ **Gizarte-babesa:** arazoak arazo, gizarte-babeseke euskal sistemak bere estaldurari eutsi dio Europako herrialde nagusien pareko mailetan, Europako BPGrekiko gastuaren ehunetara hurbilduz, eta Estatuarena hobetuz, eta beharrezkoa da gizarte-babeseke sistema indartsu batekin lotzea.

Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemari dagokionez, 2021ean berriro jaitsi da diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko sistemaren prestazioak jasotzen dituzten titularren kopurua (-% 3,7, 2020. urtearekin alderatuta), batez ere, DSBE soldata-errentaren osagarri gisa jasotzen dutenen artean (% 15,7, eta % 18, 2020an).

- ⇒ **Etxebizitza:** etxebizitzarenak etengabeko erronka izaten jarraitzen du euskal gizartearentzat.

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak ontzat jo du 2021-2024 Plan Zuzentzaile berria, alokairu eskuragarriaren eta jenderik gabeko etxebizitzaren mobilizazioaren aldeko apustua egiten baitu, eta ahalegin handiagoa egiten du etxebizitza eskuratzeko dauden programak ezagutarazteko, inflazioaren egoerak sektore horretan izan ditzakeen ondorioen berri emateaz gain. *Next Generation* Europako funtsek eskaintzen duten aukera aprobetxatu behar dela Azpimarratu behar da.

- ⇒ **Hezkuntza:** hainbat hobekuntza-arlotan lan egitea eskatzen da. Horien artean, honako hauek nabarmendu behar dira: egokitasun-tasa eta ezagutzaren eta bikaintasunaren arteko desoreka, bai eta ikasketak hautatzerakoan dauden genero-desberdintasunak ere.

Desberdintasun horiei dagokienez, laneratze-maila handiena duten lanbide-arlo eta gradu gehienetan emakumeen presentzia txikia dela ohartarazi da, eta beharrezkoa dela egoera zuzentzeko informazio- eta orientazio-estrategian sakontzea.

- ⇒ **Sektore publikoa:** finantza publikoen susperraldi nabarmena gertatu da krisiaren ondoren, batez ere, diru-bilketaren bilakaera gorakorra esker.

EGABek eskatzen du zerga- eta aurrekontu-politika funtsezko zerbitzu publikoak (osasuna, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza eta ikerketa) hobetzera bideratu behar direla, eta kolektibo kalteberetan prezioak igotzearen presioa arintzeko erabili behar dela.

**OSOKO BILKURA**

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko bilkurak **hogei batzar** egin ditu eta horietako hamahiru ezohikoak izan dira. Batzar horietan, hamazazpi irizpen, 2021eko jardueren memoria, EAeko 2021eko Memoria Sozioekonomikoa eta 2023. urteko aurrekontuak onartu dira.

**BATZORDE IRAUNKORRA**

2022. urtean Batzorde Iraunkorra **sei** aldiz bildu da. Besteak beste, gai hauek jorratu ditu: 2021eko Jardueren Memoria, 2021eko Memoria Sozioekonomikoa, 2021. urteari dagozkion urteko kontuak eta 2023. urteari dagozkion aurrekontuak, bai eta aurrekontuaren hiru hilerik behingo betearazpenen aurrekontu-kontrola ere.

**SOZIAL GARAPENERAKO BATZORDEA**

Sozial  
Garapenerako  
Batzordea  
hamaika aldiz  
bildu zen 2022an

Otsailak 9	<p>Lehenik eta behin, Kiroleko Dopinaren aurkako Legea aldatzeko lege-aurreproiektuari buruzko 8/21 Irizpenaren jarraipen-txostenari buruzko iruzkin laburra egin da.</p> <p>Ondoren, 2021-2024 aldiko Enplegu Plan Estrategikoari buruzko Irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da. Bateratze-lana egin ondoren, zenbait aldaketa adostu dira gogoeta orokor eta zehatzetan, eta aho batez onartu da irizpen-proiektua, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko bilkurari helarazteko.</p>
Otsailak 21	<p>Etxebizitza bat legez okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko dekretu-proiektuari buruzko irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da.</p> <p>Eztabaidaren ondorioz, gogoeta orokor eta espezifikotan zenbait aldaketa egitea erabaki da, eta aho batez onartu da irizpen-proiektua, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko bilkurari helarazteko.</p>
Martxoak 17	<p>14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzen dekretu-proiektuari buruzko irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da.</p> <p>Aurreproiektua aztertu ondoren, zenbait aldaketa adostu dira, bai gogoeta orokorretan, bai zehatzetan, eta irizpen-proiektua aho batez formulatzeko beharrezko akordioa lortu da, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko bilkurari helarazteko.</p>

# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

Sozial  
Garapenerako  
Batzordea  
hamaika aldiz  
bildu zen 2022an

Ekainak 14

Lehenik eta behin, iruzkin laburra egin da maiatzaren 25eko 11/21 Irizpenaren (Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legearen Aurreproiektuari buruzkoa) eta otsailaren 15eko 3/22 Irizpenaren (2021-2024 Enplegu Plan Estrategikoari buruzkoa) jarraipen-txostenei buruz.

Ondoren, EAEko 7-15 urteko biztanleentzako aho-hortzen osasunaren arloko osasun-prestazioari buruzko dekretu-proiektuari buruzko irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da.

Aurreproiektua aztertu ondoren, Batzordeak aho batez erabaki du irizpen-proiektua egitea, eta Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko bilkurari helaraztea.

Uztailak 5

EAEEn, jasagarritasunerako hezkuntza bultzatzeko dekretu-proiektuari buruzko irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da.

Aurreproiektua aztertu ondoren, hainbat aldaketa adostu dira gogoeta orokorretan, eta adostasuna lortu da irizpen-proiektua aho batez formulatzeko eta, geroago, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko bilkurari helarazteko.

Irailak 26

Lehenik eta behin, honako jarraipen-txosten hauek aurkeztu dira: 2/21 Irizpena, EAEko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak arautzen dituen Dekretu-proiektuari buruzkoa; 9/21 Irizpena, Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutuaren Lege-aurreproiektuari buruzkoa; 12/21 Irizpena, Euskadiko Osasun Publikoaren Lege-aurreproiektuari buruzkoa, eta 13/21 Irizpena, Adikzioen eta drogamendetasunen arreta integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea ez betetzeagatiko zehapenak ordeztzeko Dekretu-proiektuari buruzkoa.

Ondoren, Haur eta Nerabeei buruzko Lege-aurreproiektuari buruzko Irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da.

Aurreproiektua aztertu eta zenbait aldaketa egin ondoren, EGABek aho batez erabaki du irizpen-proiektua egitea, eta Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko bilkurari helaraztea.

Irailak 30

Lehenik eta behin, 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatuzko laguntzei buruzko dekretu-proiektuari buruzko martxoaren 21eko 5/22 Irizpenaren jarraipen-txostenari buruzko iruzkin laburra egin da.

Geroago, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako itun sozialaren araubidea eta hitzarmenak arautzen dituen Dekretu-proiektuari buruzko Irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da.

Bilkurari hasiera eman zaio eta bileran parte hartu duten pertsonen Dekretu-proiektuari eta Irizpen-aurreproiektuari buruzko iritzi orokorra emateko eskatu zaie. Iritziak trukatu ondoren, Irizpen-aurreproiektuari zenbait aldaketa egitea adostu da.

- Urriak 10** Lehenik eta behin, Enpleguaren Euskal Legearen Aurreproiektuari buruzko Irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da. Eztabaidan sortutako gaiak abiapuntu hartuta, gogoeta orokorren eta ondorioen beste formulazio bat egitea erabaki da, baita gogoeta zehatzetan zenbait aldaketa egitea ere, hurrengo bileran aztertuko direnak.
- Jarraian, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Erakundeen Errolda sortu eta horren funtzionamendua arautzen duen Dekretu-proiektuari buruzko Irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da.
- Aurreproiektua aztertu ondoren, Batzordeak Irizpen-proiektua ematea onartu du eta hori EGABen Osoko bilkurari helarazi zaió
- Urriak 20** Bileraren aztergaien zerrendari jarraituz, lehenik eta behin, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako itun sozialaren araubidea eta hitzarmenak arautzen dituen dekretu-proiektuari buruzko Irizpen-aurreproiektuari buruzko eztabaidari ekin zaió berriro.
- Aurreproiektua aztertu eta iritzi batzuk trukatu ondoren, dokumentua aldatu da, eta Irizpen-proiektua aho batez formulatzeko beharrezko akordioa lortu da, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko bilkurari helarazi aurretik.
- Ondoren, Enpleguaren Euskal Legearen Aurreproiektuari buruzko Irizpen-aurreproiektuari buruzko eztabaidaren jarraipena egin da, proposatutako testu berria aztertuta.
- Aurreproiektu berria aztertu ondoren, aldaketa txiki batzuk adostu dira, eta Irizpen-proiektua aho batez formulatzeko beharrezko akordioa lortu da, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko bilkurari helarazteko xedez.
- Azaroak 2** Suteak prebenitzeko, itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzuen Lege-aurreproiektuari buruzko Irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da.
- Proposatutako aurreproiektua aztertu ondoren, hainbat aldaketa adostu dira gogoeta orokorretan zein zehatzetan, eta adostasuna lortu da Irizpen-proiektua aho batez formulatzeko, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko bilkurari helarazi aurretik.
- Abenduak 13** Lehenik eta behin, Euskal Autonomia Erkidegoan, jasangarritasunerako hezkuntza bultzatzeko Dekretu-proiektuari buruzko uztailaren 12ko 10/2022 Irizpenaren jarraipen-txostenari buruzko iruzkin laburra egin da.
- Ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko Lege-aurreproiektuari buruzko Irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da.
- Bilkurari hasiera eman zaió eta bileran parte hartu dutenei Lege-aurreproiektuari eta Irizpen-aurreproiektuari buruzko iritzi orokorra emateko eskatu zaió. Esku-hartzeetatik ondoriozta daitekeenez, adostasuna dago lege baten beharrari buruz, baina igar daiteke Lege-aurreproiektuaren hainbat edukiri buruz oso iritzi desberdinak dituztela batzordeko kideek. Galdera batzuk geratu dira mahai gainean, erantzunik gabekoak, eta batzordeburuak hurrengo bilera batean lantzen jarraitzea proposatu du.

# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

## EKONOMIA GARAPENERAKO BATZORDEA

Ekonomia  
Garapenerako  
Batzordea sei  
aldiz bildu zen  
2022an

Urtarrilak 10

Lehenik eta behin, Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko 2021-2024 Planari buruzko ekainaren 28ko 3/21 Irizpenaren jarraipen-txostenari buruzko iruzkin laburra egin da.

Ondoren, EAEn aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jardura antolatu eta ikuskatzeari buruzko Dekretu-proiektuari buruzko Irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da.

Aurreproiektua aztertu eta iritzi batzuk trukatu ondoren, zenbait aldaketa adostu dira, eta Irizpen-proiektua aho batez formulatzeko beharrezko akordioa lortu da, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko bilkurari helarazi aurretik.

Urtarrilak 20

Lehenik eta behin, iruzkin laburra egin da Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duen Dekretu-proiektuari buruzko uztailaren 30eko 12/19 Irizpenen jarraipen-txostenei buruz eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautu eta eguneratzen duen ekainaren 23ko 109/2015 Dekretua hirugarrenez aldatzeko Dekretu-proiektuari buruzko abenduaren 23ko 7/20 Legea garatzen duen Dekretu-proiektuari buruz.

Ondoren, bidaia-agentzien dekretua bigarren aldiz aldatzeko Dekretu-proiektuari buruzko Irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da.

Iritziak trukatu ondoren, zenbait aldaketa adostu dira, eta Irizpen-proiektua aho batez formulatzeko beharrezko akordioa lortu da, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko bilkurari helarazi aurretik.

Apirilak 5

Lehenik eta behin, otsailaren 26ko 5/2020 Irizpenaren jarraipen-txostena aurkeztu da, Euskal Autonomia Erkidegoko itsas uretako eta ur kontinentaletako arrantzen eta arrantza-erakustaldien dekretu-proiektuari buruzkoa.

Jarraian, Euskal Autonomia Erkidegoko Higiezinaren kredituko bitartekarien eta higiezinaren mailegu-emaielen baimena eta erregistroa arautzen dituen Dekretu-proiektuari buruzko Irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da, bai eta horiek gainbegiratzeko eta zigortzeko funtzioak ere.

Aurreproiektua aztertu eta iritziak trukatu ondoren, zenbait aldaketa adostu dira proposatutako gogoetetan, eta Irizpen-proiektua aho batez formulatzeko beharrezko akordioa lortu da, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko bilkurari helarazi aurretik.

Ekainak 2

Lehenik eta behin, Euskal Autonomia Erkidegoan elikagaien hurbileko salmenta arautzen duen Dekretu-proiektuari buruzko Irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da.

Iritziak trukatu ondoren, zenbait aldaketa adostu dira, eta, aho batez, Irizpen-proiektua formulatu da, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko bilkurari helarazi aurretik.

Jarraian, EAeko txerri-azienda estentsiboko ustiategiak antolatzeko oinarrizko arauak garatzen dituen Dekretu-proiektuari buruzko Irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da.

- Proposatutako aurreproiektua aztertu ondoren, gogoeta zehatz bakarra ezabatzea erabaki da, eta orokorren idazketari eustea. Halaber, Irizpen-proiektua aho batez formulatzeko erabakia hartu da, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurari helarazi aurretik.
- Uztailak 15
- Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren Lege-aurreproiektuari buruzko Irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da.
- Aurreproiektua aztertu eta iritzia trukatu ondoren, zenbait aldaketa adostu dira, bai gogoeta orokorretan, bai zehatzetan, eta Irizpen-proiektua aho batez formulatzeko beharrezko akordioa lortu da, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen osoko bilkurari helarazi aurretik.
- Azaroak 29
- Lehenik eta behin, kable bidezko garraioaren Lege-aurreproiektuari buruzko 4/21 Irizpenaren eta bidaia-agentzien dekretua bigarren aldiz aldatzeko Dekretu-proiektuari buruzko 2/22 Irizpenaren jarraipen-txostenak aurkeztu dira.
- Ondoren, Ingurumenaren Aholku Batzordearen osaera, kideak izendatzeko prozedura, antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen Dekretu-proiektuari buruzko Irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da.
- Proposatutako aurreproiektua aztertu ondoren, idazketa berria adostu da, laburragoa eta orokorragoa, txosten osoari doakionez. Batzordeko kideek dokumentu berria linean berrikusi ondoren, Irizpen-proiektua aho batez formulatzeko akordioa lortu da, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurari helarazi aurretik.

# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

## MEMORIA SOZIEKONOMIKOAREN BATZORDEA

Batzorde hau  
bederatzi aldiz  
bildu zen  
[2022ko](#)  
[Memoria](#)  
[Sozioekonomikoa](#)  
lantzeko

Martxoak 18	<p>2021eko MSEren <b>lehen zirriborroaren</b> eztabaida.</p> <p>Zerbitzu teknikoek egindako zirriborroei buruz jasotako proposamenak eta iritziak aztertu dira. Ondorioz, aho batez onartu dira I. kapitulua (Demografia EAEn), II.6. kapitulua (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza) eta IV.1. kapitulua (Bizi-baldintzak).</p>
Apirilak 8	<p>2021eko MSEren <b>bigarren zirriborroaren</b> eztabaida.</p> <p>Zerbitzu teknikoek egindako zirriborroei buruz jasotako proposamenak eta iritziak aztertu dira. Ondorioz, aho batez onartu dira V.2. kapitulua (Ingurune naturala) eta V.3. kapitulua (Osasuna eta osasun-sistema)</p>
Maiatzak 13	<p>Aldez aurretik, Batzordeko lehendakariak proposatuta, lehen bidalketaren II.6. kapituluan (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza) gogoeta berri bat sartzea erabaki da.</p> <p>Ondoren, 2021eko MSEren <b>hirugarren zirriborroa</b> eztabaidatu da.</p> <p>Zerbitzu teknikoek egindako zirriborroei buruz jasotako proposamenak eta iritziak aztertu dira. Ondorioz, aho batez onartu dira II.5. kapitulua (Ekoizpen-azpiegiturak) eta IV.2. kapitulua (Gizarte-babesa), salbuespen honekin: "Gogoetak" izeneko atala. Atal horren idazketa berria aurkeztuko da, hurrengo bileran eztabaidatzeko.</p>
Ekainak 3	<p>Lehenik eta behin, 2021eko MSEren hirugarren zirriborroko IV.2. kapituluaren (Gizarte-babesa) gogoeten idazketa berria adostu da.</p> <p>Geroago, 2021eko MSEren <b>laugarren zirriborroa</b> eztabaidatu da.</p> <p>Zerbitzu teknikoek egindako zirriborroei buruz jasotako proposamenak eta iritziak aztertu dira. Ondorioz, aho batez onartu dira III. kapitulua (Enplegua eta lan-harremanak EAEn) eta V.1. kapitulua (Hezkuntza eta kultura).</p>
Ekainak 15	<p>Memoriaren aurkezpen instituzional eta publikoko ekitaldiei buruzko hainbat alderdi praktikoko jorratu ondoren, 2021eko MSEren <b>bosgarren zirriborroa</b> eztabaidatu da.</p> <p>Zerbitzu teknikoek egindako zirriborroei buruz jasotako proposamenak eta iritziak aztertu dira. Ondorioz, aho batez onartu da V.4. kapitulua (Etxebizitza).</p>
Ekainak 20	<p>2021eko MSEren <b>seigarren zirriborroaren</b> eztabaida.</p> <p>Zerbitzu teknikoek egindako zirriborroei buruz jasotako proposamenak eta iritziak aztertu dira. Ondorioz, aho batez onartu dira II.4. kapitulua (Sektore publikoa) eta II.8. kapitulua (Ekonomia: laburpena eta gogoetak).</p> <p>Hartutako erabakietatik abiatuta, Batzordeak aho batez onartu du EAEko 2021eko Memoria Sozioekonomikoaren Proiektua, eta, ondoren, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko bilkurak berretsi du 2022ko ekainaren 28ko bilkuran.</p>

Ekainak 28	<p>2021eko MSE aurkezteko proposamenaren eztabaida.</p> <p>Zerbitzu teknikoek egindako PowerPointen zirriborroari buruz jasotako proposamenak eta iritziak aztertu dira, Memoriaren mezu nagusiak aintzat hartuta. Ondorioz, aho batez onartu da aurkezpen hori, bai eta nabarmendu beharreko mezu nagusiak ere, bai 2021eko MSEren aurkezpen instituzionaletan, bai aurreikusitako prentsaurreko eta aurkezpen publikoan.</p>
Azaroak 29	<p>2022ko Memoria Sozioekonomikoaren lanak abian jarri dira.</p> <p>Zerbitzu teknikoek egindako aurkibidearen eta lan-egutegiaren zirriborroei buruz jasotako proposamenak eta iritziak aztertu dira. Ondorioz, aho batez formulatu dira aurkibidearen proiektua (Osoko bilkurara igorri da) eta Batzordearen 2023ko lan-egutegia.</p>
Abenduak 14	<p>LAB sindikatuaren ordezkari gisa, Oihana Lopetegi, ekintza sindikaleko arduraduna, eta Endika Pérez, Gizarte Ekintzako idazkaria, agertu dira MSEren Batzordean.</p> <p>“Trantsizio ekosozialista eta feminista gauzatu eta ondasuna banatzeko neurriak” izeneko txostena aurkeztu dute.</p>



# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

## BATZORDE EGUTEGIA

### Urtarrila

AST	AST	AST	OST	OST
3	4	5	6	7
<b>EGB</b>	11	12	13	<b>O.B</b>
17	18	19	<b>EGB</b>	<b>BI</b>
24	<b>O.B</b>	26	27	28
31				

### otsaila

AST	AST	AST	OST	OST
	1	2	3	4
7	8	<b>SGB</b>	10	11
14	<b>O.B</b>	16	17	18
<b>SGB</b>	22	23	24	<b>O.B</b>
28				

### martxoa

AST	AST	AST	OST	OST
	1	2	3	4
7	8	9	10	11
14	15	<b>BI</b>	<b>SGB</b>	<b>MSE</b>
<b>O.B</b>	22	23	24	25
28	29	30	31	

### apirila

AST	AST	AST	OST	OST
				1
4	<b>EGB</b>	6	7	<b>O.B</b> <b>MSE</b>
11	12	13	14	15
18	19	20	21	22
25	26	27	28	29

### maiatza

AST	AST	AST	OST	OST
2	3	4	5	6
9	10	11	12	<b>MSE</b>
16	17	18	19	20
23	24	25	26	27
30	31			

### ekaina

AST	AST	AST	OST	OST
		1	<b>EGB</b>	<b>MSE</b>
6	7	8	<b>OB</b>	10
13	<b>SGB</b>	<b>BI</b>	16	<b>OB</b>
<b>MSE</b>	21	22	23	24
27	<b>O.B</b>	29	30	

### uztaila

AST	AST	AST	OST	OST
			1	2
<b>SGB</b>	6	7	8	9
<b>OB</b>	13	14	<b>EGB</b>	16
18	19	20	21	22
26	<b>OB</b>	28	29	30

### iraila

AST	AST	AST	OST	OST
			1	2
5	6	7	8	<b>OB</b>
12	13	14	15	16
19	20	21	<b>OB</b>	23
<b>SGB</b>	27	28	29	<b>OB</b>

### urria

AST	AST	AST	OST	OST
3	4	<b>BI</b>	6	7
<b>SGB</b>	11	12	13	14
17	<b>OB</b>	19	<b>SGB</b>	21
24	25	<b>OB</b>	27	28
31				

### azaroa

AST	AST	AST	OST	OST
	1	<b>SGB</b>	3	4
7	<b>OB</b>	9	10	11
<b>OB</b>	15	16	17	18
21	22	23	24	25
28	<b>EGB</b> <b>RI</b> <b>MSE</b>	30		

### abendua

AST	AST	AST	OST	OST
			1	2
5	6	7	8	9
<b>OB</b>	<b>SGB</b>	<b>MSE</b>	15	16
<b>OB</b>	20	21	22	23
26	27	28	29	30

<b>OSOKO BILDURA</b>	<b>20</b>
<b>B. IRAUNKORRA</b>	<b>6</b>
<b>SOZIAL GARAPENERAKO B.</b>	<b>11</b>
<b>EKONOMIA GARAPENERAKO B.</b>	<b>6</b>
<b>MSE B.</b>	<b>9</b>

### III. KAPITULUA JARDUERA INSTITUZIONALA

Otsailak 1

#### **Euskadiko, Galiziako, Gaztela eta Leongo, Extremadurako eta Andaluziako Ekonomia eta Gizarte Batzordeen bilera**

Euskadiko, Galiziako, Gaztela eta Leongo, Extremadurako eta Nafarroako Ekonomia eta Andaluziako Gizarte Batzordeek bilera egin dute Nazioz gaindiko Sare Atlantikoaren lanen garapenari eta Garraio Ministerioak (Mugikortasuna eta Hiri Agenda) egindako Trenbide Estrategiari buruzko hausnarketak partekatzeko.

Otsailak 3

#### **Nazioz gaindiko Sare Atlantikoko Lantaldearen bilera telematikoa**

Sareko batzorde kideek bilera egin dute Europako Batzordeak abenduaren 14an argitaratutako dokumentuak aztertzeko.

Dokumentu horiek Europa barneko garraio-sarearen erregelamenduaren berrikuspenari eta Mugikortasun Berde eta Eraginkorrerako Paketeari buruzkoak dira.



Otsailak 14

#### **EGAB eta Akitania Berriko CESER-en arteko bilera**

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko presidentek eta idazkari nagusiak, Akitania Berriko CESER-eko homologoekin batera, bi batzordeen arteko aldebiko lankidetzaz bidezko aztertu dituzte.

Martxoak 31

eta apirilak 1

#### **Estatuko EGABen urteko bilera, Santiago de Compostelan**

Erikidegoetako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluek, Espainiako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearekin batera, urteroko bilera baliatu dute elkarriketa instituzionalerako erakunde garrantzitsu gisa gaur egun eta etorkizunean izango duten zereginari buruz hausnartzeko eta, beren kontsulta-eginkizunaren bidez, politikak eratzeko prozesua hobetzeko.



# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

Maiatzak 4

## **Espainiako EGABek prestatutako “Gobernanza económica de la Unión Europea. El impacto de la pandemia” txostena aurkeztu da Bilbon**

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak jardunaldi bat antolatu du “Europar Batasunaren gobernantza ekonomikoa. Pandemiaren eragina” izeneko txostenaren inguruan. Espainiako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egin du txostena. Txostena aurkeztu ondoren, eztabaida-mahaia egin da, eta, bertan, Europar Batasunaren gobernantzari buruzko gogoeta batzuk aurkeztu dira.



Maiatzak 6

## **Euskadiko, Galiziako, Gaztela eta Leongo, Extremadurako eta Andaluziako Ekonomia eta Gizarte Batzordeen bilera**

Euskadiko, Galiziako, Gaztela eta Leongo, Extremadurako eta Andaluziako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeetako lehendakari eta idazkari nagusiek Atlantikoaz haraindiko Sarearen Korridore Atlantikoari buruzko Lantaldea prestatzeko bilera egin dute.

Maiatzak 11

## **CEBEKen batzarra**

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko lehendakaria gonbidatu gisa joan da CEBEK-k Bilbon egin zuen Ohiko Batzar Nagusira.

Maiatzak 11

## **Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen Egunaren ospakizuna**

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko idazkari nagusia gonbidatu gisa joan da Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen Egunera, Gasteizen.



Maiatzak 13

### ASLEren Batzar Nagusia

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko lehendakaria gonbidatu gisa joan da ASLEk Gasteizen egindako Batzar Nagusira.



Maiatzak 19

### Euroeskualde eta Akitania Berriko CESER-ekiko bilera, Hendaian

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea Euroeskualdeko eta Akitania Berriko CESEReko ordezkariekin bildu da, gizarte zibilaren ordezkaritza Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdearen ohiko jarduerarekin nola uztar daitezkeen aztertzeko.



Maiatzak 25

### “Mujeres, trabajos y cuidados: propuestas y perspectivas de futuro” txostenaren aurkezpena

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko lehendakaria Espainiako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak egindako

“Mujeres, trabajos y cuidados: propuestas y perspectivas de futuro” txostenaren aurkezpen-ekitaldian izan da.



# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

Maiatzak 27

## **Euskadiko, Galiziako, Gaztela eta Leongo, Extremadurako eta Andaluziako Ekonomia eta Gizarte Batzordeen bilera**

Bost batzordeak Europa barneko Garraio Sarearen Erregelamenduaren berrikuspena aztertzeko bildu dira.

Ekainak 1

## **Nazioz gairik Sare Atlantikoko Lantaldearen bilera telematikoa**

Talde horretako batzordeek jardunaldi bateratu batean aztertu dute nola kontrastatu Korridore Atlantikoari buruzko txosten propioa eta nola berrikusi Europa barneko Garraio Sarearen Erregelamendua.

Ekianak 9

## **Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako ordezkariaren agerraldia 2030eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana aurkezteko**

Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako ordezkari Cristina Uriartek 2030eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana aurkeztu du Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Batzordearen Osoko bilkuran .



Ekainak 11

## **Portugaletako Hiriaren 700. urteurrena**

EGABeko lehendakariak Portugaletako hiriaren 700. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldietan parte hartu du.





### Uztailak 1 **LSB-USO biltzarra Euskadiko**

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko lehendakaria gonbidatu gisa joan da LSB-USO sindikatuek Bilbon egindako biltzarrera.



### Uztailak 6 **Espainiako EGABen Memoria Sozioekonomikoaren aurkezpena**

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko lehendakaria Espainiako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egindako 2021eko Memoria Sozioekonomikoaren aurkezpenean izan zen, "Grandes desafíos para la economía y la sociedad españolas: el valor del diálogo" topaldiaren esparruan, Santanderren.

### Uztailak 12 **2021eko Memoria Sozioekonomikoa Lehendakariari aurkeztea**

2021eko Memoria Sozioekonomikoaren lanak amaituta, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko lehendakariak eta idazkari nagusiak, batzordeko kide batekin batera, memoria aurkeztu diote Lehendakariari; harekin batera izan dira ekitaldian.

Idoia Mendia Lan eta Enplegu sailburua, Pedro Azpiazu Ekonomia eta Ogasun sailburua eta Beatriz Artolazabal Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua.



# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

Uztailak 13

## 2021eko Memoria Sozioekonomikoa Eusko Legebiltzarrari aurkeztea

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko lehendakariak eta idazkari nagusiak 2021eko Memoria Sozioekonomikoa aurkeztu diote Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko lehendakariari.



Uztailak 18

## Euskadiko 2021eko Memoria Sozioekonomikoaren jendaurreko aurkezpena

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko lehendakariak eta Memoria Sozioekonomikoaren Batzordeko lehendakariak 2021eko Memoria Sozioekonomikoa aurkeztu dute prentsaurrekoan. Ondoren, jendaurreko aurkezpen-ekitaldia egin da.



Uztailak 21

Euskadiko, Galiziako, Gaztela eta Leongo, Extremadurako eta Andaluziako Ekonomia eta Gizarte Batzordeen bilera

Euskadiko, Galiziako, Gaztela eta Leongo, Extremadurako eta Andaluziako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeetako lehendakariak eta idazkari nagusiek bilera egin dute korridore atlantikoari buruzko lanen berrikuspenean sakontzeko.

Irailak 9

### Euskadiko Hezkuntza Lege-proiektuaren Aurkezpena

Hezkuntza sailburu Jokin Bildarratzek Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko bilkuran aurkeztu du Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko Lege-aurreproiektua.



Irailak 16

### “Immigrazioa eta asiloa: hiriak eta kulturarteko elkarteak” jardunaldia

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordeko kide ohien elkartearekin batera, immigrazioari eta asiloari buruzko jardunaldi bat antolatu du Euskadiko Artxibo Historikoaren egoitzan.





# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

Irailak 22

## **Euskadiko Enpleguari buruzko Lege-aurreproiektuaren aurkezpena**

Enplegu eta Gizarteratzeko sailburuorde Alfonso Gurpeguik Enpleguaren Euskal Legearen aurreproiektua aurkeztu du Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko bilkuran.



Urriak 3

## **Urte judizialaren irekiera-ekitaldia**

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko lehendakaria Urte Judizialaren irekiera-ekitaldian izan da, Bilbon.

Urriak 24

## **"Euskal enpresak erronka demografikoaren aurrean" jardunaldia**

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko lehendakariak gonbidatu gisa hartu zuen parte Confebaskek Bilboko Euskalduna Jauregian antolatutako "Euskal enpresak erronka demografikoaren aurrean" jardunaldian.

Azaroak 14

## **EAEko 2023ko Aurrekontu Orokorren proiektuaren aurkezpena**

Ekonomia eta Ogasuneko sailburu Pedro Azpiazu Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen osoko bilkuran agertu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko 2023ko Aurrekontu Orokorren proiektua aurkezteko.



Abenduak 1

## **Bilera Akitania Berriko CESERekin**

Euskadiko EGAB eta Akitania Berriko CESER Bilbon bildu dira, azterlan-ekimenei buruzko esperientziak trukatzeko. Jardunaldiaren esparruan, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak urtero egiten duen memoria sozioekonomikoaren edukia eta metodologia aurkeztu dira.

## Abenduak 2

### **Nazioz gaidiko Sare Atlantikoaren Orientazio Batzordea**

Nazioz gaidiko Sare Atlantikoa Bilbon bildu da, korridore atlantikoaren eraginari buruz

2019An hasitako azterlanak amaitzeko. Bilera baino lehen, Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako idazkari nagusi Marian Elorzak

esku hartu du Arku Atlantikoaren Batzordearen lana eta epe ertaineko erronkak aurkezteko.



# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

## IV. KAPITULUA BITARTEKO MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK

### 2022KO AURREKONTUA


Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 1.629.900,00 euroko aurrekontua aurkeztu du 2022ko ekitaldian; zenbateko horren 1.628.700,00 € EAEko Aurrekontu Orokorren kargura joan dira eta 1.200,00 € finantza-sarrereren kargura.

2022ko gastuen eta diru-sarrereren aurrekontu arrunta honako kapitulu handietan banakatu da

	AURREKONTUA	GAUZATUA	MAILA
<b>GASTUAK</b>	<b>1.629.900,00</b>	<b>1.439.872,94</b>	<b>% 88,34</b>
I. KAPITULUA– Langileen gastuak	706.698,87	639.817,06	% 90,54
II. KAPITULUA– Jardunbide-gastuak	915.201,12	799.536,87	% 87,34
VI. KAPITULUA– Inbertsioak	8.000,00	519,01	% 6,49
<b>SARRERAK</b>	<b>1.629.900,00</b>	<b>1.439.872,94</b>	<b>% 100,03</b>
IV. KAPITULUA- Transf. Dirulaguntzak gastu arrunta	1.628.700,00	1.628.664,00	% 100,00
Eusko Jaurlaritza	1.628.700,00	1.628.664,00	% 100,00
V. KAPITULUA.– Ondare sarrerak	1.200,00	1.785,91	% 148,83
Aurreko ekitaldietako gerakinak	0	- 190.576,97	

\* 2022ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren datuak behin-behineko itxierari dagozkie, eta urteko ikuskaritzaren emaitzen zain daude.

Gastuen likidazioaren eboluzio historikoaren xehetasuna eta eboluzioa kapituluka:



# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

## V. KAPITULUA KOMUNIKAZIOA ETA ARGITALPENAK

### KOMUNIKAZIOA



#### @CESEGAB sare sozialak

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak sare sozialetan parte hartzen du Twitterren, Facebooken eta LinkedIn-en dituen kontuen bidez, eta bere jarduerekin lotutako hainbat alderdiren berri ematen die jarraitzaileei.

Informazio berekiaz gain, zerrenda irekien bidez biltzen eta aurkezten du intereseko erakunde eta eragile ekonomiko eta sozial ugariak eta Batzordea osatzen duten erakundeek sare sozial horri eskainitako informazioa.

Era berean, garrantzitsutzat jotzen dituen hirugarrenen informazioak hautatzen eta zabaltzen ditu, erakunde aholku-emaila honen interes-esparruei dagokienez.



#### Webgunea

Web orrian Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari, haren jarduerari eta argitalpenei buruzko informazioa eskaintzen da.

Horren bidez, EGABek garatzen dituen jarduerari buruzko informazio eguneratua lor daiteke, hala nola irizpenak ematea, txostenak eta azterlanak egitea, hitzaldiak antolatzea eta abar.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak argitaratutako lan guztiak sarrera librekoak dira, eta PDF formatuan deskarga daitezke, dokumentuen eta lanen atalean.

2022 urtean zehar argitalpen hauek txertatu ditugu gure web-orrian [www.cesegab.com](http://www.cesegab.com) PDF eta EBOOK formatuan:

[Jardueren Txostena 2021](#)

[Memoria Sozioekonomikoa 2021](#) eta [Laburpena eta Gogoetak 2021](#)

Irizpenak:

- [1/21 IRIZPENA](#), urtarrilaren 14koa, EAEn Aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jarduera antolatu eta gainbegiratzeari buruzko Dekretu Proiektuari buruzkoa
- [2/22 IRIZPENA](#), urtarrilaren 25koa, Bidaia-agentziei buruzko Dekretua bigarren aldiz aldatzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- [3/22 IRIZPENA](#), otsailak 15ekoa, Enplegu Plan Estrategikoa 2021-2024ri buruzkoa.
- [4/22 IRIZPENA](#), otsailak 25ekoa, etxebizitza legez okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- [5/22 IRIZPENA](#), martxoak 21ekoa, 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- [6/22 IRIZPENA](#), apirilak 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoko higiezinaren mailegu-emaileen eta kreditu higiezinaren bitartekarien administrazio-erregistroa eta haien jardueraren administrazio-kontrola arautuko duen Dekretu-proiektuari buruzkoa.
- [7/22 IRIZPENA](#), ekainak 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoan elikagaien hurbileko salmenta arautzen duen Dekretu-proiektuari buruz.
- [8/22 IRIZPENA](#), Euskal Autonomia Erkidegoko txerri-azienda estentsiboaren ustategiak antolatzeko oinarriko arauak garatzeko Dekretu-proiektuari buruzkoa.
- [9/22 IRIZPENA](#), ekainaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 7-15 urteko biztanleen aho-hortzen osasunaren arloko prestazio sanitarioari buruzko Dekretu-proiektuaren buruzkoa.
- [10/22 IRIZPENA](#), uztailak 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Jasangarritasunerako Hezkuntza sustatzeko dekretu-proiektuari buruzkoa.
- [11/22 IRIZPENA](#), irailak 27koa, Trantsizio energetikoari eta Klima-aldaketari buruzko Lege-aurreproiektuari” buruzkoa.
- [12/22 IRIZPENA](#), abenduak 9koa, Euskadiko Osasun Publikoaren Legearen aurreproiektuari buruzkoa.
- [13/22 IRIZPENA](#), urriak 18koa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean; horren bidez, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen errolda sortzen duen eta horien funtzionamendua arautzen duen Dekretu-Proiektuari buruzkoa.

# JARDUEREN TXOSTENA 2022

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

- [14/22 IRIZPENA](#), urriak 26koa, Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari itun sozialaren eta hitzarmenaren araubidea arautzen dituen Dekretu-proiektuari buruzkoa.
- [15/22 IRIZPENA](#), urriak 26koa, Enpleguaren Euskal Lege-aurreproiektuari buruzkoa.
- [16/22 IRIZPENA](#), azaroak 8koa, Suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuen Lege-aurreproiektuari buruzkoa.
- [17/22 IRIZPENA](#), abenduak 12koa, Ingurumeneko Aholku Kontseiluaren osaera, kideak izendatzeko prozedura, antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen dekretu-proiektuari buruzkoa.

- 1979ko abenduaren 18ko 3/1979 LEGE ORGANIKOA, Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatuari buruzkoa (EAO, 306 zk., 1979-12-22) (EHAA, 32 zk., 1980-01-12koa).
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 (EHAA, 101 zk., 2012-05-24koa).
- 2013ko urriaren 29ko 433/2013 DEKRETUA, Euskadiko Gizarte eta Ekonomia Arazoetarako Batzordeari buruzkoa (EHAA, 209 zk., 2013-11-4koa).
- 2013ko azaroaren 22ko Osoko Bilkuraren ERABAKIA, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudio onartzen duena (2013-12-11ko EHAA, 232. zk.), Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkuraren 2019ko martxoaren 22ko Erabakiaren bidez zuzendua (2019-04-01eko EHAA, 63. zk.).